


Mohamed

eta parroko gorria



MARTIN UGALDE

ELKARLANEAN

MOHAMED
eta parroko gorria

Martin Ugalde

Elkarlanean

Azala

Diseinua: J. Felix Igartua

Argazkiak: Juantxo Egaña

Egilearen argazkia: Aitor Bayo / Jakin

© Martin Ugalde

© ELKARLANEAN S.L. Donostia 2000

L.G. NA. 2662/2000

ISBN 84-8331-697-8

Elkarlanean S.L. Argitaletxea

Portuetxe kalea, 88 bis

20018 Donostia

Tel. 943-31 02 67

Fax: 943-31 02 16

elkarlanean@elkarlanean.com

www.elkarlanean.com

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, S.L., Tafallarako bidea 1. km - Villatuerta (Nafarroa)

Zorioneko koitaduak

Urterik urte, eguberriak aldera, kate batean ez bada bestean, *Bai ederra dela bizitzea!* izeneko filma botatzen digute telebistaz (*It's a Wonderful Life*, 1946). Gogoratzen ez duenarentzak oroigarri: James Stewart on-puskak ahaleginak eta bi egin ditu bizitza osoan bere inguruko alde, eta gauza guztiak txarto doazkion une batean zalantza izango du, altruismo horrek merezi ote zuen, harik eta zerutik etorritako aingeru batek baietz frogatzen dion arte, bera gabe mundua zein aldrebesa izango zatekeen erakutsiz. Film gozo horren egile Frank Capra (Sizilia, 1897-Kalifornia, 1991), bere bizialdi luzearen amaiera aldera, zuzendaritza utzita oroitzapenak idatzi eta hitzaldiak ematen aritu zen, eta behin baino gehiagotan aitortu omen zuen bere zinemagintzak oinarri ideologiko nagusi bat zuela: Mendiko edo Lautadako hitzaldia (halaxe deitzen zaio, hurrenez hurren, Mateoren eta Lukasen ebanjelioetan), historia osoko manifesturik ezagun eta aldi berean manipulatuenetako bat, non zorioneko jotzen diren behartsuak, gose direnak, negar egiten dutenak...

Galtzaileen aldeko humanismo kristau hori garbi ikus liteke Ugalderen eleberrietan ere: protagonistak umeak izan ohi dira, biktimak, gaixoak, inguruan gertatzen denaz ezer gutxi ulertzen dutenak. Koitaduak. Joera hori, gainera, areagotu egin da nobelaz nobela: *Itzulera baten historia*-n, Venezuelen erbesteraturiko familia bateko alaba dator Euskal Herrira, neskaxa argi bat, bere gurasoen maitasun guztia daukana baina historiaren etsaitasuna pairatu beharko duena; *Pedrotxo*-n ere bizi-bizi sentitzen da bai etsaitasun hori, bai inguruko batzuen babesa, baina mutiko protagonista umezurtza da, eta argitasun handirik gabea; eta okerrago daude gauzak kontakizun honetako Mohamedentzat: bera ere umezurtza eta ez oso argia, historia ez ezik kontra ditu bere burua eta are familia ere neurri batean, errukitzen zaion eliz jende bihozbera beste laguntzarik ez duela...

Konstante bi ikus litezke eleberrien arteko bilakaera honetan: batetik, Martin Ugalderen bizitzan bezala obra osoan ere nabarmen, 36ko gerraren eta gerraostearen ondorio suntsitzaileak, zornea darion zauriaren mina; tirorik ez da ageri liburu honetan, garai horretan girotua badago ere, baina bai bihotz-zikoiztasun bat, sentimenduak herbaltzen, zikiratzen, itotzen dituen. Bestetik, bigarren konstantea, ingurune tragiko horren erdian noraezean dabiltzan izaki gaixo eta galduak hartzen dutela beti egilearen begirada amultsua.

Berezitasunak ere baditu eleberri honek, azpimarratu beharrekoak. Bat, deigarria, protagonistaren jatorria: marokoar gazte bat da Mohamed, Errepublika garaian Bilbora iritsia; emigrazioaren gaia landua zuen Ugaldek, Venezuelen gatzelaniaz idatzitako lanetan, baina –horrenbeste kanpotar jaso dituen herri batean harrigarria dirudien arren– gutxitan azaldu da etorkina gure literaturan, eta ez oso gozo: Martinen sentiberatasun beti emearen beste erakusgarri bat.

Berezia da tokia ere, militarren kuartelak jakiz hornitzeko txerri-hazkuntzan lan egiten baitu Mohamedek, eta txerrikorta baita, horrenbestez, eleberriko gertaleku nagusia. Irakurketa ugari baimentzen dituen sinboloaren balioa hartzen du txerrikorta

honek: giro itxi bat sortzen du, behin eta berriz aipatzen den kiratsak pertsonaiei arnasa lasai hartzea galaraziko balie bezala; kontrapuntu ironikoa jartzen du militarren ohore eta handikerien aurrean; eta patuaren aurkako borroka bat ere azaltzen du, Mohamedek aurre egingo baitie txerriak hiltegi bezala historiaren labanapera eraman nahi duten indarrei.

Musulman gazte bat txerri-zaintzan dabilena, txorizoa eta pattarra maite dituen, ez da itxuraz moraltasunerako eredu egokia inondik inora, batez ere moralez beteriko militar eta apaiz jendeen artean dabilenez gero (ezin aipatu gabe utzi don Eugenio erretorea, eleberri honetako pertsonaia indartsu eta interesgarrietakoa). Eta hala ere, historiaren haizeak txotxongiloaren modura darabilen txoriburua dirudien arren, Mohamedek badu bere baitan justiziaren sen bat, salatari jarduteko proposatzen diotenean ezetz esanarazten diona, badu duintasunaren zentzua, bere jakituria oso eskasa izan arren bide zuzena zein den azaltzen diona.

Zorioneko koitaduaren ibilera zoritxarrekoen atzeko planoan, 36ko gerrarekin lotutako hainbat irudi ageri dira eleberrian barrena, trazu arinez marraztuak: militarren isilkako konspirazioak altxamenduaren aurretik, etsai enboskatuen salaketak, eskuindar espainolistak abertzale katolikoek nola babestu eta gorde zituzten, sozialisten eta komunisten arteko borroka Errepublikaren barruan, faxismo internazionalaren amets inperialak, alde bateko eta besteko espioitza sare ilun eta nahasiak... Denak ere laburki azalduak, dida, haritik tiraka jarraitzeko aski gogorik edo astirik ez balu bezala. Azken batean, horiek denak historiaren dekoratua baitira, nolabait esanda, eta bertan jokatzeko da hezur-haragizko gizakien eguneroko drama, Ugalde idazleari gehien interesatzen zaiona.

Eleberri honetan ez dugu topatuko, beraz, Capraren filmetan bezala, inolako miraririk: zuzendari estatubatuarraren aldean esan liteke zintzoago jokatzeko duela Ugaldek, ez duela amaiera zoriontsua erraztuko digun tranparik egiten. Transzendentzia ukatzen nahiz baiesten ibili gabe, gure munduaz ari da, ez bestaldekoaz, eta mundu honetan zapaltzaileak daude, zapalduak daude, eta bihotz oneko nahiz zekeneko jendea; izaki gaixo noragabetu horiek dira idazlearentzat egiazko aingeru, hemen ez baitugu topatuko Goi-goitik etorritako aingerurik, eltzetik babak aterako dizkigunik. Oharkabea edo jakinaren gainean, mundua hobetzea mundutarron erantzukizuna dela oroitarazten digu hartara Martin Ugaldek.

*Xabier Mendiguren Elizegi
Donostian, 2000ko urriaren 30ean*

Aingeru bat

Tzelata de Anyeran bizi nintzen guraso zaharrekin, aitak eskuz egiten zituen larruzko oinetakoak ostegunetako ferian saltzeko. Askotan Alkazarzege-era jaisten ginen hirurok, ni haurra oraindik. Itsaso eta hondartza honen egarri egoten nintzen neroni. Joan-etorria bidezidor estu eta maldatsuan, beti espainol lodi bat ikustera joaten ginen; Tiburtzio izeneko honek txerriak hazten zituen kuarteleko soldaduei jaten emateko, hau zen bere lana; eta beti hitz egiten zigun han azaltzen ginenean Bernardino izeneko gure asto gorriarekin, karga oso bat galtza, bota, maindire eta alkandora Tzelata-ko plazatxoan astero merkatuan oinetakoekin batera saltzeko. Baina sekretuan, gordetako merkantzia zen!

Neuk hau gero ulertu nuen.

Gizon potoloak eta Mercedes andreak nire adintsuko alabatxoaren zuten, Merzeditas, eta neskata hau eta biok hondartzan jostatzen ginen eta bainatzen ginen, hau zen nire zorarena!

Ohitura honen oroimena geratu zait nire zeru gordea bezala.

Ez dut geroztik lagunik izan, ez neska, ez mutil; zorabio hau gordetzen nuen ezkutuan, eta nahikoa nuen, ustekabean gizon bat nire bila etorri zen arte. Inork ez zidan ezer esan, eta derrepente batean agertu zitzaigun gizona, nik zazpi urte nituela... Bazkaritan ari ginela gizonak mahai gainetik zerbait hartzerakoan, ez dakit nola, bere eskuak, mahaiaren gainetik, nire eskua ukitu zidan, kolpetxo bat eman zidan garbi-garbi...

Eta amak esan zidan, "Gizon hori zure aita da."

Lurrikara batek astindu ninduen.

Hau da Mohamed, goizean, kafea hartzen ari nintzela, Rosario hermana atezainak atetik gaztigatu didana, "Begoña, elkarrizketa bat duzu gaur goizean, Zentrora etortzen hasi nahi duen gazte bat... Dena galdua dirudien gizontxo bat". Halaxe ikusten dut nik ere: txikia eta galdua, begirada larria baina ez zoratu, oso umila baizik; beheraldi batean kikildua, agian.

Egiatan laguntza bila datorrela dirudi.

Beraz, zazpi urte arte bere aitona-amonak guraso zituelakoan, derrepente gizon berri hau aita dela esaten dio amonak... Eta arratsaldeko hiruretan hartzen du eta Marokoko beste munturrera eramaten du... Umeak ezer ez zekiela, nahi gabe bezala hark eskuaz ukitu bat egin zion eta gero amonak esan zion "Zure aita da eta zure bila dato?, eta ordu batzuk geroago hiruren artean, eta guraso xaharrak negarrez, trenean sartu zuten eta, Tetuan hiria ere atzean utzita, hauts tartean norabait, gauetan ere ezin lo eginik, Marrakechen esnatu zela esan zioten. "Heldu gara", esan zion gizonak, bere aita berriak, eta igo ziren ama berria zain zeukan eskailera zikin batzuen bururaino...

"Zer aurkitu zenuen hemen?", galdetzen diot gomuta horren goi muturretik gizontxoari.

"Asko izutu nintzen..."

Hemen, Marrakechen, aurkitu zituen guraso gazteak eta hiru arreba, bera baino zaharragoak; Mohamed bera zen txikiena. Ama berriaz galdetu nion. Luze begiratu zidan. Ez nekien zer esan nahi zuen niganako arakatze hark, eta zain geratu nintzen. Gizontxoa isilik ordea. Ni ere bai, oraindik; ikusi nahi nuen zer nolako traban geratu zen mutikoaren gomuta... Malko geldi bat irten zitzaion, eta ni neu izan nintzen atzera egin zuena... "Ez duzu horretaz hitz egin nahi?" Gizonak burua haurren modura balantzatu zidan ezker-eskuin. Orduan galdetu nion ea iparraldera itzuli zen geroztik, itsasoa ikusi zuen berriro... Baietz, buruarekin..., eta irten zitzaion hitza, "Bai...", oporretan joaten zirela bi urtetik behin-edo Ibrahim-en kamioi gorrian, aitona-amonak ikustera joaten zirela, gustuko zuela bidaia, "bai...!" Eta pentsatzeko makina geratu egin zitzaion bat-bateko balaztadarekin.

"Behin... behin, bidaia hauetako batean, aitona-amonekin aste pare bat egin ondoren Marrakechera gentozela, Casablancako inguruetan geratu ginen pixa egitera, bakardadean galduta dagoen tabernatxo batean, eta ni azkena; bueltakoan ere atzetik eta ez nuen aurkitu... ez kamionetarik eta ezta beste inor ere. Familia osoa desagertu zen... Aurkitu nuen bezala joan zitzaidan. Ezin nuen sinetsi. Eta komunera egin nuen bidaia bi-hiru aldiz... tabernatxoa hutsa, nagusia niri begira jarri zitzaidan, susmagarria ni nonbait, limonada besterik ez genuen gastatu, eta orain familia osoa irten eta ni bakarrik norabiderik gabe ikusita, ez zitzaion ongi irudituko, beti begiratzen didate susmo horrekin, eta hau hiru aldiz egin nuenean, irten ere egin zen atera nire atzetik, begiluze, eta neuk egin nuen nire bidea, alferrik, ez zegoen autoaren arrastorik..."

"Galdu zinen!"

"Bai."

"Ez zinen ikaratu?"

"Apur bat."

"Gehiago ez?", galdetu nion gizontxoari, harriturik neu, eta ezetz esan zidan, eta jarraitu zuen kontatzen aitona-amonenganako bidaia zaila, enbor handiz zamatua zihoan kamioi batek hartu zuela goizaldean, eta hemendik aurrera paketetxo bat legez izan zela eramana, Tetuan-eraino..., "etxean noizbait!", eta hemendik Tzelata de Anyerara, eta Alkazarzegerreko kuartelean sarjentu zen batek hartu zuen kamionetatxo militar batean... Honek aitona ezagutzen zuen, Alkazarzegerreko zapatatirik trebeena!

Pozik esan zidan hau Mohamedek, egiazko osaba bat aurkitu balu bezala. José Cortés omen zen gizon hura, zaldiez arduratzen omen zen ijito handi bat.

Aitona-amonek pozik hartu zuten, baina alarman, nonbait. Mohamedek ulertu zuenez, paperen poderioz Marrakechen behar zuen, haurra zelako, eta han azaltzeak istiluak ekarriko omen zizkien, bai, eta hobe omen zen aitaren nahia betetzea. Orain, legez, urtero edo bi urtetik behin etortzen zen bisitara, bazen zerbait...! Hau esan omen zion amonak, eta gizontxoak kolpetik alto egin zuen kontaktetan, hustu egin zen Mohamed, jada aitona-amonon maitasuna ere galduko zuen beldurra sortu zitzaion...

Agortuta eta sustrai gabe geratu zen, eserita zegoen aulkian galdua.

Neronek esan nion ea bihar ordu berean etorriko litzatekeen, eta baietz... Baina ez zen saredun aulkitik zutitzen, eta nik ez nuen nahi Zentrotik botea sentitzerik, pauso handia emana zuen hark Marrakecheko katolikoan misiora sartuta! Isilik geunden biok,

beharbada hari beretik tiraka; gizon hau bakar-hutsean dagoela, inor gabe, Zentroko kide bezala har dezaten eske, ezin esango diot kinka honetan agur, bihar arte, bortxatua sentituko litzateke...

Hurrengo egunean, bederatzietarako hemen dut, puntualki, gizontxo. Ni neu ere zain nengoen, atea zabalik, ura irakiten neukala. "Egun on" esan dit zelataka bezala, burua aurretik, bi eskuak atzean loturik, eta zutitu naiz atzoko aulkia leku berean eskaintzeko, eta eseri da irribarre bat ezpainetan, atzo baino alaiago, ausartago esango nuke; eseri zait xuxen aurrean eta Mohamedek berak hitz egin du, aurrea hartu dit, prest zeukana adierazteko, "Gaur Marrakechekoa esan behar dizut."

"Bai, nahi baduzu...", eta hartu du luzatu diodan te kikara.

"Lehen egunetan ez, baina laster hasi zitzaidan ama joka... Amak, ama berriak, asko jotzen ninduen, eta seinaleak azkar markatu zizkidan buruan, bizkarrean, ezkerreko matrailean... Ni haur hautsi bat naiz."

Horixe esan dit Mohamedek gizon egina dagoen gailurretik: "Ni haur hautsi bat naiz". *Un enfant cassé*, gure medikuak dioen moduan. Bere ama propioak hautsi du!

"Hamabi-hamahiru urte nituela hasi nintzen zurrutean, aitona-amonengana joan nintzen uda batean. Banituen lagun batzuk Ceutatik whiskya ekarri eta hoteletan saltzen ibiltzen zirenak... Gauean edaten genuen, hondartzan. Ez naiz inoiz oso zurrutero handia izan, baizik eta pixkanaka, noizbehinka, arazoak nituenean; baina, noski, ohitu egin nintzen, eta etxean sumatu egin zuen amak, eta igarri zidanean handitu egin zen infernua, itxi zizkidan etxeko armairu eta gela guztiak, eta aldi berean handitu ziren jipoiak..."

Hau da ohizko katea. Honek esan nahi du gaztetxo hori bere gelatik irteten denetik dena giltzaturik aurkitzen duela, eta ez duela ezer ulertzen, ez duela geroztik, oraindik, ezer ulertu. Jipoiak eta itxitura batera, dena batera, ez duela ezer ulertzen infernu honetan; baina hau zen etxeko legea eta bertan iraun zuen ama nazkatu zuen arte edo gurasoek nahikoa kozkortua zegoela ikusi zuten arte. Eta adinarora heldu zenean esango zioten, "Orain ez zaitugu gehiago etxean nahi."

"Beti izan dut lana, zeregin txikiak, aitonak zapatak konpontzen irakatsi zidan, igeltseritzan moldatzen naiz, botila bilketan ibilia naiz etxez etxe, zurgintzan ere saiatu naiz; behin inprimategi batean ere lan egin nuen kamioiak kargatzen; beti aurkitzen dut lana..."

Horrek esan nahi du lan horiek galdu ere egiten dituela. Galdetu nion nola galtzen dituen aurkitutako lanak, eta esan zidan, lanak berak amaitzen zirela... Gehien iraun dion lana zein den, eta zalantzarik gabe esan zidan zapataritza dela, hau dela gehien maite duen lana: urratuak konpondu, zuloak estali, takoi berriak jarri, iltzeak, iltze txikiak, kolpeka, kolpe txikika, bakarka, sartzea du gustuko... Oso omen da trebea lan bilaketan. Trebea da batez ere esaten diotena egiten, asmatzen omen du berehala agindutako gauzak nola egin...

Baina agindua behar du, zenbat eta aginterago, hobe.

Norbaitek iradoki, adierazi, behar dio.

Galdetu diot non bizi den.

"Oso behartsua, pobrea da ni bizi naizen ingurua, ez dago mezkitarik ere... Leku txiki-txiki bat aurkitu nuelako gelditu nintzen hemen, bestela Espainiara joango nintzen, edo Frantziara... Okerrena jendea da, jendea ez da esaneko!"

"Jendea ez da esaneko!" apuntatu dut.

"Aldameneko andreak bi patata behar dituela haurrari zopa egiteko, itzuliko dizkidala bihar; baina bihar ez dago patatarik bueltan. Beti honela. Lehengoan bere senarra izan zen esnea erosteko dirua utziko nion bihar arte eskatu zidana, beti biharko da hemen!, itzuliko zidala, baina pasa da eguna eta ez dator ezer bueltan! Iruzurtua sentitzen naiz, engainatua eta bortxatua. Noski, ni lanean ari naiz, lehen lan egin nuen zapategi berean, hain xuxen, konforme, eta auzokideek ez dute lanik, nik hori konprenitzen dut, baina ulertu behar lukete soldatak ez didala ematen beste inor mantentzeko; hala balitz... ezkonduko nintzateke...! Behar dut konpainia, emea... eta izaera onekoa!, zeren txarrekoa izateko nahiko naiz neroni! Beste kobazulo baten bila nabil. Ahal bada, orain dudan hau baino hobea. Ez zait axola txikia bada, oraingo gela hau den bezalaxe; ni bezalako gizon txiki batek ez du leku handia behar..."

Bertan lekua eskatzeko modu bat zen, ezagutzen ditut zeharbide hauek. Zentroan hartu genuen gaixo bezala, larunbat-igandeetan izan ezik egunero bederatzietatik arratsaldeko seiak arte, bertan bi otorduak, bazkari eta afari, eta gainontzeko ariketa arautuak ere barne. Eta polito moldatu zen Mohamed bertara. Fin etortzen da egunero, ariketak gogoz egiten ditu, taldetxoaren partaide ona da, ematen dugun jana gogoz hartzen du zaintzaile eta gaixoekin batera... Deskantsu uneak ere errespetatzen ditu... Apur bat loti ikusten dut, nekeak jota bezala, erraz geratzen da kikili-makaldua, bizitasun gutxiko gizona da, hau da gehien nabari zaion joera. Gainerakoan ongi ikusten dut gizona, txukun janzten da, ez da fumatuta agertu inoiz, ezta edana ere. Denetarik baitago hemen jasoak dauden gizajoeak osatzen duten unibertso txiki honetan. Opio gogorak jota gehiago haxix bigunak baino. Badugu hemen andre bat, heldutxoa bera, bere eguneroko drogatxoa nolabait lortzen duena; jantzi ere garesti egiten da, lotsagabe, Europako moduan. Mohameden alderantzizkoa da, ezin da kontrastasuna hobeto erakutsi. Eta halere zerbaitek lotzen ditu, asko hitz egiten dute.

Misterio ezkutuak dira gizakiarenak askotan.

Neroni izan naiz konturatu naizena, noski, bere segizioa egin behar zuena naizenez. Emakumea, ospitaleko beteranoetako bat, izan da lehen hurbiltzea egin duena, eta nik neuk ikusi dut gizontxoa armiarma saretxoan eulia bezala erortzen, erresistentziarik gabe!, gizaseme apala egokitu zaio emaztekiari, bere harroaren neurrira. Ez da batek bestea aurkitu duela, baizik eta biak egokitu direla misterioan. Atzo ezin zen bat bestearekin ikustea pentsa, eta gaur ezin dut neronek bata bestea gabeko Zentroa ikusi.

Lehengo egunean ausartu egin nintzen Fatimari esaten, Fatima izena du emakume eleganteak, eta ni kontu handiz, zeren pertsonalitate klase hauek oso baitira minberak, interesa dudala Mohameden kasuan, batez ere oso nekatuta ikusten dudalako, aise geratzen da lotan eserita dagoela, ea nola ikusten duen berak. Berezko garbian erantzun zidan oso lagun egin zirela, gizon txukuna zelako, argia, duen baino gehiago merezi duena. "Arrazoi duzu", esan nion, "oharpen sakona da zurea..."

"Baina gauza batek egiten dio kalte", erantsi zidan, "oso dela apala, apalegia, anbizio pixka bat gehiago balu, hain erraz etsiko ez balu, gauza asko lortuko lituzke..." Zer lor lezakeen, esate baterako, tira nion mingainetik, eta xaloki erantzun zidan, "Ba...", eta errezero berri bat agertu zitzaion eskuineko begi beltz ederrean, dirdira bat, ez dakit nik, "duen baino zerbait gehiago, ez du ezer!, lagunik ere... Horretaz kezkatzen da, baina, esan nion, hori irabazi egin behar da, dena bezala...! Eta lehengoan galdetu zidan interes handiarekin, behin eta berriz, ea nola egingo zituen lagunak, nahi zuela hori jakin; baina gauza hauek ezin dira erraz adierazi..."

Galdetu diot, gaur goizean, nola doakion, eta lagun berria, hain apaina beti, aipatu diot, eta esan dit, "Bai, baina Zentroko eritegian sartuko naizen galdetzen dit, horko botilatxo batzuk lapurtzea nahi du..."

"Zer esan diozu?"

"Ezetz."

"Ongi egin duzu, Mohamed, zuzen jokatu behar duzu beti..."

"Bai ba!"

Utzi nuen gaia alde batera, ez nintzen beren arteko polizia lana egiteko tentazioan erori, ez baita hori gure egitekoa. Medikuari abisatu nion haatik, ibiltzeko kontuz morfina non uzten zuen. Eta astebete-hamar egun geroago, astelehena zen hain zuzen, neu Zentrora heldu nintzenean Mohamed ordurako atean zegoen nire zain. Nirekin hitz egin nahi zuela, ahal banuen hartu... "Noski", esan nion, eta nire eguneroko notak ikusten ari nintzela, gizontxo bere betiko aulkian eserita niri begira, zer esan nahi ote zuen presa hark, ea asmatzen nuen...

"Lehengoan ez nizun dena zuzen esan... Bi gezur esan nituen."

"A, bai? Ez dira handiak izango..."

"Gogoratzen zara nola azaldu nizun Ibrahimen kamioia huts egin nuela gauez tabernatxo hartatik irten nintzenean...? Bada, ez zen egiatan hala izan, zeren ni heldu nintzenean, kamioia egon, han zegoen, eta nik entzun egin nuen nola nitaz, eta gaizki!, hitz egiten ari ziren gurasoak, eta utzi nien alde egiten..."

"Zergatik esan zenidan gezurra?"

"Ez dakit... Lotsatua nago, barkatu."

"Barkatua zaude. Seguru zaude gaizki esaka ari zirela zutaz?"

"Bai... Esan nizun bezala, egin nuen txiza eta egin nuen egiatan errepiderainoko nire itzulia; ikusi nuen kamioi gorria hantxe, oraindik geldi, eta hurbildu nintzenean beren artean hizketan ari ziren marmarrean, eta sentitu nuen gau beltzean barrutiko nire arnasa... eta geratu egin nintzen seko, zer entzungo! Nitaz ari ziren erdi barrez, ama ari zen esaten ni galdu nintekeela basamortu hartan eta ez zuela inork jakingo non... 'Baina ez dago ondo', esan zuen gizonak, aitak, eta isildu ziren unetxo batean, eta amaren ahotik entzun nuenak eman zidan min: 'Zerorrek ekarri zenuen, bakean bizi ginenean!', eta berriz isildu ziren, baina hartan, parrast, Ibrahimek kamioia martxan jarri zuen... Neuk ez nuen pauso bat eman motor zarata ilunpean galdu zen arte. Bakar-bakarrik sentitu nintzenean, lotu nintzen barrutik triku baten antzera, zotin bat sentitu nuen, nirea zen, baina ez nuen negar egin, neronek uste nuen legez, baizik eta eseri nintzen

errepidearen erdian eta esan nion neure buruari inoiz sentitu ez dudan harrokeria: Mohamed, basamortuaren erdian hago, ez Tetuanen ez Marrakechen, laster piztuko duk eguna, mingaina hor duk laguntza eskatzeko, itxoin ezak alderantzizko bidea egiten ari den asto edo kamioi bat etorri arte, eramango haute apurka-apurka inoiz utzi behar ez huen etxerantz, han egongo dituk aitona-amonak, musu bat emateko irrikaz zain, eta kito! Eta Merzeditas ere bai! Honela konturatu nintzen nire kabuz gauzak egiteko gauza nintzela, orduan hasi nintzen haur izateari uzten... eta orain ez naiz jadanik haur ezgauza bat, hogeita bi urte beteko ditut laster. Hau izan da inoiz egin dudan tranpa bakarra."

"Eta bigarrena?"

"Bigarrena?"

"Esan zenidan bigarren gezurra."

"A, ez da gezur-gezurra, baina ezkutatu egin nizun gauza bat... Egonaldi haietako batean Merzeditasekin harreman batzuk izan nituen, horixe ezkutatu nizun, eta batez ere amonak gai horretaz esan zidana, Merzeditas ez zela niretzat, bere atzetik zebilen kabo primera batentzat zela, ni haur bat nintzela oraindik, 'aingeru bat', horixe esan zidan, ez nintzela gauza 'gizonen lanak gizonki egiteko...' Ez dakit zer esan nahi zidan honekin, baina zerbait txarra, nonbait, eta honek min eman zidan..."

Eta mututu egin zait gizona, nahiko nahastua.

"Ongi egin duzu bi gauzatxo horiek esatea, honek zure beste neurri bat ematen dit, eta onerako izango da, laguntzeko bide bat ematen didazu, amonak esan nahi zizuna ez da txarra, eta esperientzia handiko emakumea denez, zure onerako ohar bat egin nahi izan zizun."

Handik hiru egunera Mohameden ondoan eseri nintzen bazkaritarako. Irribarre batekin onartu ninduen. Nik broma txiki bat egin nahi izan nion, eta mahai gainean pausatua zeukan ezkerreko esku gaina jo nion nire eskuineko eskuarekin.

Begiratu zidan hitz egiteko abian, eta ikusi zuen nire bromako jitea, eta esan nion ea bazkalondoan etorriko litzatekeen nire bulegora, eta baietz, joango zela. Bi gezurtxo ez baina, dena gezur handi bat ez ote zen jakin nahi nuen.

Hala etorri zitzaidan, poza begietan.

"Zergatik gelditu zara hemen Marrakechen horrela sufritzen, aitona-amonengana joan beharrean?"

Luze begiratu zidan, tinko, sinetsi ez banio bezalako mindurarekin, ezagun zuen ez zela itxurakeria. Eta oso sinpleki frogatu zidan benetakoa zuela iluntasun hura:

"Merzeditas ezkondu egin zen kabo primerarekin... Nik ezin nuen hori ikusi, ezkondu zirela jakin nuenean kordea galtzeraino edan nuen... Urrun behar dut nik handik."

Ea nola zekien hainbeste. Amonak idazten ziola noizean behin. Aitonak ez zekiela idazten, amonak bai. Galdetu egin nion, ea Merzeditasi inoiz idatzi zion, eta ezetz; amonaren bitartez zerbait pasa, bai: zilarrezko oroigarri txiki-txiki bat, esate baterako, eta orain lotsatua zegoela, kaboarekin ezkontzekotan zegoela eta... Galdetu nion hau nolako pertsona zen, Merzeditas nola tratatzen zuen, jakin nahi nuen bere ikuspegia, eta

ea amonak honetaz hitz egiten zion... A, eta ea Zentroko dama eleganteaz zer pentsatzen zuen.

"Gutxi eta gaizki."

Aspaldi hartan ez nuen lehen bezain maiz ikusten; banekien lanean taxuz ari zela zapataritzan, bere lanean, ongi irabazten ari zela eta zurrutari utzi ziola osorik. Pauso handiak ziren hauek, eta adore ematen ahalegintzen nintzen. Behin agertu zitzaidan arratsaldeaz eta kopetilun; zerbait bazekarren eta neronek itxi nuen bulegoko atea, honek adierazten zuen lanean ari nintzela eta ez nengoela inor hartzeko. Amona ospitalean omen zegoen ebakuntza bat egiteko, eskutitz bat bidalia zion ohetik. Nigana jo zuen, ez zuen beste inor, estuasun baterako, lehen bezain bakar bizi zen. Esan nion uste nuela bidegurutze batean zegoela, eta orain arteko errutina utzi eta bide berri bat hartzeko parada zetorkiola. Mugitu egin behar lukeela. "Nora?" Bada, aurrena, amona ikustera; autonomia zela orain, lanean, zurrutaren morrontzatik irtena... "Bai, nola". Bada oso pertsonala den zerbait galdetu nahi niola, ea egiten ahal nion itauna. Baietz. Gutxienez sei hilabete badela lan tinkoa duela; ea aurreratu zuen sosen bat, eta galderari xuxen erantzuteko zerbait esan beharrean, zamarra marroi haren barruko poltsikoaren botoia askatu eta Marokoko Banque Centrale-ko libreta bat eskuratu zidan! Ez nion hartu, esan nion jakin nahi nuela amonarengana esku hutsik ez azaltzeko adina aurreratua zuen. Ez zekiela. Bada, mugitzen hasteko, eskatzeko bere lantokian egun batzuk libre...

"Konforme...? Gero ikusiko dugu zer egin eta nola; lantokian eskatu behar da orain bidaia hau egiteko baimena. Ulertu duzu dena...? Bai? Ni hemen zure zain geratzen naiz, eta lagunduko dizut!"

"Goazen!" esan, eta bultza egin nion ahotsarekin gizon osoaren erantzukizuna betetzeko asmo sendoa har zezan.

Hemen zegoen hurrengo eguneko arratsaldean, ikaratua oraindik baina irribarre itxaropentsu batekin bidaia egiteko baimena emango ziotela hamabost egunerako. "Zorte ona izan, itzulitakoan etorriko zara noski?" Eta baietz, baietz... "Agur Mohamed, zure zain geratzen gara, hemen ere baduzu familia, ez ahaztu sekula". Txundituta zegoen, musu ere eman zidan!, ezer esan gabe, eta orduan lepoko gurutzetxo bat ipini nion eskuan, "ez galdu inoiz esperantza". Ikusi nuen nolako pauso ziurrarekin irten zen etxetik, eta lorategiaren ertzetik begiratu zuen azken aldiz, eta agur esan nion eskuz eta bihotzez.

Ausart samar jokatu nuen, baina Mohameden bizitza honelako zerbaiten beharrean zegoen.

Batzuetan apustuak ere egin behar dira!

Fitxak betetzen ari nintzen bulegoan telefono tirrinak jo zuenean, entzun nuen Mohameden ahots urrundu eta angustiatua, "Begoña...! Bai... Ni naiz, Mohamed..."

"Bai, nola zaude?"

"Aitona hil zait..."

"Amona?!"

"Ez, aitona..., amona operatu zuten, eta ondo dago, baina aitona hil zait gaur gauean, nirekin hizketan ari zela...! Zer egingo dut orain?!"

"Amonari lagundu. Entzun? Bai, amonari lagundu..."

"Bihar deituko dut berriz. Eskerrik asko."

"Eskumuinak amonari..."

"Amona ondo dago", eta zotin bat, haizeak batzuetan egiten duen zarata.

Txunditurik ni neu geratu nintzen orain. Mutikoa, gizontxo galdua, errealitatearen aurrean kolpetik, aitona hil zaio berarekin hizketan ari zela!

Hurrengo egunean ez nintzen bulegotik irten. Goiz etorri nintzen, tea hartu nuen eta goiza luze, fardel, nekez, amaitzen ari zela, heldu zen gizontxoaren ahotsa:

"Begoña, ni naiz, Mohamed..."

"Bai, esan, nola zaude?"

"Amonak hitz egin nahi dizu..."

"Egun on, ni naiz, Mohameden amona...", espainiera txukun batean hitz egin zidan.... "Aurrena, eskertu nahi dizut, asko, biloba bidali didazulako, eta une honetan gainera; eskerrak nire izenean eta nire senarrarenean ere, berarekin hizketan lasaiago hil baita, segur naiz! Eta nik, orain, bakarrik geratu naizenez, gorde nahi nuke mutila... Zer iruditzen zaizu?"

"Oso ongi, ez da beste inon hobeto egongo; maite zaitu."

"Orduan hau egingo dugu: nik gordeko dut biloba, Mohamed aingerua. Eskerrak, Begoña, eman diozuen laguntza guztiagatik."

"Nahi duzun arte."

"Idatziko dizut, agur. Agur, nire bilobatxoaren aingeru guardakoa."

Ohitura zuen amonak aingeruak aipatzeko, beharbada hala hitz egingo zien beti monjei.

Begoña oso estimatua:

Modu zuzenean nahi dizut eskertu nire bilobari eskaini eta eman diozun laguntza handia, batez ere Marrakecheko mundu nahasian emana izan delako. Mohamed erraza izan da niretzat beti, baina eraso handiak jasota ahuldua. Zeuk zuzen eta maitasun handiarekin ulertu duzu, ezin hobeto egin duzu dena. Neuk, bere amonak, eta nirekin nire defuntuak, eskertzen dizugu berriz.

Ez zaitu amona honek gehiegi nekatu nahi, baina adierazi nahi dizut zerbait berezia. Haur honen gaitza bakardadea izan da. Eta batez ere orain, zure laguntza gabe geratu denean, badu oso bereziki behar duen laguntza bat: Merzeditasena. Badakit honetaz hitz egin dizula mutilak. Bere bizitzako lagun eta andre bakarra bihurtu da, halabeharrez; kabo primera bat zuen senargai, komeni ere zitzaion, eta ezkontzekotan zen berarekin, honek egin zion haur bat gainera, baina mutil hau ez da aingerukia, gurea bezala, eta bota dute armada espainoletik presondegira luzerako. Hor geratu da neska bakarrik, Jainkoak gure mutilari eman nahi izan balio bezala. Honen bideak neronek zuzentzen ditut pixka bat, segur aski, baina ondo eta santu datorrena askotan okertxo ateratzen da. Hor zaude zu ere. Mila esker berriz, Begoña.

Hadjara, Mohameden amona.

Bixenteren gerra gorria

Txerriak ikustera zetozen armadako ofizialek hitz egiten zuten batzuetan beren artean, txerritokia isileko gauzez hitz egiteko leku ona zelako, Bixente ez baitzen horientzat txerri isil eta axolagabe bat besterik, baina Bixente erne egoten zen, behin "Gerra" hitza entzun zuen, ezpainak okertuta esandako hitza. Hurrengo astean, "Gerra" entzun zuen bazter hartan hamabi ofizial bildu ziren, bat kapitain ezaguna, gizon atsegina, tropen sukaldeko ardura zegoakionean asteko txerriak aukeratzera etortzean egunona ematen zekiena... Bada, hau izan zen lehen dozena bat ofizial bildu zirenean buru, eta han ahoskatu zuen lehen aldiz Bixentek ezagutzen ez zuen hitz doblea, "Gerra Zibila", zibilek egiten zuten gerra, noski, pentsatu zuen Bixentek, eta egun honetako azkena txerriak banan-banan kontatu eta apuntatzea izan zen. Pentsatu ere egin zuen ea bere mende zeuzkan txerriak kuarteletik kanpoko negozioan sartzen hasi ote ziren... zeren eta, bere aitagarreba Tiburtziok beti esaten zuen negozio honetan dirua egiten zutenak ez zirela txerri-hazkuntzan zebiltzan zibilak, sukalde lana tokatzen zitzaizkien ofizialak baizik. Inoiz entzundako lezio labur bat gorde zuen memorian, eta ez zekien gehiago: "urdailak ez ezik beste guztiak ere gizentzen ditu zerriak."

Behin, goizez, gure mataderiara nindoala, tapa-tapa, teniente Rico geratu zitzaidan nire alturan, ni firme, ohitura bat zen hau niretzat. Askotan bezala "Igo, Bixente!", esan zidan, berak jarri zidan izen hori, txantxetan, ez omen zuelako musulmanik nahi bere inguruan, eta igo nintzaion kamionetara, bere ondoan, "Eskerririk asko ene tenientea!" esaten nion bitartean... Teniente txiki hau zen gure albaitari nagusia.

"Zenbat ditugu gaur...?"

"Hamahiru."

"To, numero txarra..."

"Ez dago numero txarrik zerriak ongi gizenduak badaude", esan nion barrez, berari ikasia bainuen erantzun hau...

"Sekulan ez dizut galdetu, Bixente, nola zauden negozio honetan zerrikirik jaterik ez daukazula..."

"A, baina negozio hau ez da nirea..."

"Badakit, badakit..."

"Ni langile arrunt bat nauzu hemen."

"Bai, baina nik jaten ikusi zaitut zure etxean, niri ez zait axolarik, noski, baina nola hartzen duzu zeuk erlijioaren aldetik hau dena...?"

"Bai, txorizoa gustatzen zait asko, arrautza frijitu baten ondoan..." Eta orduan Begoñak oparitu zidan gurutzetxoa erakutsi nion golkotik aterata, "Ni ez naiz mahometar osoa... Badakizu, bizi ere egin behar da".

Barretxo txiki bat irten zitzaion tenienteari, "Ez uste, ulertzen zaitut..." Gero mataderiako gasolindegian bete zuen depositua, eta bolantera igotzerakoan esan zidan,

etenik izan ez bagenu bezala, "Badakizu, kristauok ere baditugu legeak eta ez ditugu betetzen; ezin dugu inor hil, bekatu larria da, baina gerran denak hiltzea libre da...!"

"Barkatu, teniente jauna, baina uste duzu gerra hori benetan lehertuko dela?"

"Gerra? Negozio txarra irabazten duenarentzat ere!"

Horretan pentsatzen gelditu nintzen mutu, eta iritsi ginenean "Zu Marrakechen bizi izan zinen, ezta?", galdetu zidan.

Bixente du izen berria orain, baina elizan, tabernan, lanean, ezin ezkutatu bere jatorria, denek egozten dizkioten erlijioa eta ohiturak: beti izango da Mohamed, "Begoñako kuarteletako mairua."

Don Eugeniok, auzoko erretoreak, defendatu izan du, baita pulpitutik ere, Jainkoagan dugun sinesmena, bai kristautasuna, bai islamismoa, jainkotasun bera dela; hau esan nahi zuen gaur Bixente deitzen dioten Mohamedek ere tabernan, eta bere Jainkoa defendatu zuen pixka bat edan zuenean, bera mairua zela herritasunez, baina Jaungoiko katolikoa ere onartzen zuela, bere emazte Merzeditas kristaua zela eta honek eman zizkion bi haurrak ere kristau bezala bataiarazi zituela... Baina tabernako kontuak aise zabaldu ziren auzoan, eta etorkinak ezin zuen harrezkero zurrunbilo hartatik irten.

"Ulertzen haut, egia ximplea duk, baina ez huen tabernan kontatzen hasi beharrik!"

Kokildua dago mairua katolikoaren iman musugorriaren aurrean.

"Bai, egia da, erretore jauna, baina gizona mairuen aurka ari zen garrasika hizketan, eta uste gabe esan nion gu mairu guztiak ez ginela gaizkileak; gure artean ere, herri honetan gertatzen den bezala, denetarik dagoela. Hau izan zen nire defentsa."

"Bai, ongi egin duk, baina tabernan goizeko ordu bietan esana!"

"Egia da, erretore jauna..."

"Noiztik hago Bilboko zulo zikin honetan?"

"Urtebete eskas... Hau ez da zulo zikin bat, jauna, esango nizuke nik..."

"Non bizi haiz, zer egiten duk?"

"Alkazarzegertik etorri gara..."

"Alka... zer? Non duk hori?"

"Han behean, Marokon, Tetuan ondoan, hango kuartel barruan geunden txerriak hazten; hori zen Merzeditasen aita zenaren ofizioa, han jaiok dira nire emaztea eta bere bi haurrak, bat kabo primera batena..."

"Zer...?"

"Harekin ezkondu ninduten katolikoki apaiz militarrek, kaperauek..."

"Horiek kaltea besterik ez ditek ekartzen..."

"Amona hil zait orain urte eta erdi, eta hango gomendio bat bide dela etorri gara Bilbora lanera, emaztearen aita zenaren lagun batzuei esker, eta suertea izan dugu, han altxamendua gertatu baita orain, badakizu, gerra negozio txarra da irabazten duenarentzat ere..."

"Ez zakiat ba, ez zakiat ba...! Militarrek mandoak zeuzkatela banekien, baina txerriak..."

"Beti txerri-hazkuntza da gure ofizioa, hemengo armadako gazteek jan dezaten txerria, elikagai hobea hemengoa, bai."

"Ba ote? Zergatik?"

"Hemen sobra hobe eta gehiago lortzen da jatetxeetan, erretore jauna."

"Ez duk gezurra, seguru!"

"Ez, erretore jauna."

"Segi lanera, eta tabernan kontuz, erlijioaz aritzeko batez ere!"

Lasaiago itzuli zen don Eugenioren etxetik, baina hala ere berri hark txokatua zeukan, "Gerra", "Gerra Zibila" Espainian eta Marokon, ikaratu egin zen, huraxe zeukan burutik ezin kendua. Etxetik hurbil zerbait sumatu zuen txerrikortan, atzera egin zuen, oinezkoen bidea hartzeko, eta bakarrik sentitu zen; hots apa1 bat entzun zuen ukuiluko bulegoan... eta hurbildu ahala joan zen hitzak zatika hartzen, gero osoan, "Beraz militarrena da hitza gerra honetan... zibilek ez dute zertaz kezkatu, gutxiago inon biltzen hasi ere; hau Gobernadore Militarraren egoitza da nolabait, dena bakean eta kontrolpean dago..."

Baina ez zegoen inor bulegoan. Sentitu zuen kamioi bat pizten, bazihoan, berandu zen ikusteko nor ziren... Irten zen zamarra besoan zeramala eta pauso handiz hartu zuen patiotik errepidera; beribil bat hirirantz presarik gabe. Bidean zihoala beste batzuk gurutzatu zituen, bizikleta bi ere bai. Bazirudien hiltokian bakarrik aztoratu zirela... Tenientearen martxa... Pixka bat lasaitu zuen honek.

Heldu zen etxe zuri-marroira, igo zituen presaka samar bi etxebizitza, eta heldu zen irekia zegoen atera, entzun zituen Merzeditasen ahotsa eta haurren betiko tirabiraxoa... Normala zen dena. Etxean ez zuten irratigailurik. Itzuli egin zen eskaileretan behera, emaztea izutu gabe... eta hartu zuen eskuinera, auzoko hurbileneko tabernatxora, irratia martxan izaten zuten beti, ea zertan zen honen alarma...

"Zer deritzozu, Merzeditas, teniente Ricok esan didanari?"

"Lehendabizi, nire aingerutxo..."

"Zergatik aipatzen didazu hitz hori...?"

"Esango dizut hau ere... Zergatik jartzen zara zu militar batekin, bai, al baitaria bada ere, zergatik hizketa delikatu hori militar jantzia daraman batekin? Ez al zizun esaten aitona defuntuak, militarrek, apaizak bezala, hori direla aurrena, apaizak eta militarrek!, eta kontuz arrasto hori gurutzatu!?"

"Bai, bueno, baina..."

"Ez dago bainarik, neuk, eta hurrek, zu behar zaitugu, laurok zure lanaren beharrean gara, ez al da hala...?"

"Bai..."

"Gizon horrek ikaratu egin nahi zaitu, gaixotu, ez duzu ikusten? Horregatik hasi zaizu esaten zu mairua zarela, Tetuangoa zarela..."

"Zergatik?"

"Bada, esango dizut, Bixente, ni nahi nauelako! Ni bereganatu nahi nau, eta horretarako zu gaixotu nahi zaitu ikara bidez! Ulertzen duzu orain...? Hau jakin nahi zenuen, orain badakizu... Mesedez, egin kasu niri!"

Papera bezain zuri, galduta, ausente, joana dagoen Bixente besarkatzen du, Mohamed besarkatzen du, haurrak zirenean bezala...

"Eta gerra, ez da egia...?", dio bere aingerutxoak zotin batean.

"Gerrarena egia da, bai; atzo hemen izan zen teniente txikia, zu lanean zinela, esaten haurrak eta ni eramango gaituela salbu, zu hemen eta nonahi arrisku bat zarela, altxatuen infiltratu bat... Orain, entzun iezadazu: jarrai zure lanean txeritokian, ez jaramonik egin gizon gaizto horri. Nik neuk ere, aita zenaren bitartez, lagun ditut militar batzuk, ahaztuta al zaude? Ez zaigu ezer pasako! Afal dezagun, zu ere oso nekatuta egongo zara noski, eta bihar beste egun bat izango da. Konforme? Ale, jarri platerak eta jango dugu... Hara, haurrok sentitu dute zerbait, ez ditzagun, bada, ikaratu. Badakizu zer dugun afaltzeko?"

Eta bere senarrak, ume:

"Arrautza frijituak txorizoarekin?"

Lo zeuden laurak beheko aldaba jo zutenean.

Bixente ohean eseri zen; baina hitza altxa, Merzeditasek: "Nor da?" Erantzunik ez, eta berehala leihoaren bi plastako eta emaztearen ahotsa berriz galdezka, "Nor da hor...?"

"Herri Komitea, ireki!"

Hiru gizon ikusi zituen emazteak ezkaratzeko argitan.

"Noren bila zatozte?"

"Bixente behar dugu!"

"Bixente? Zenbatgarrenekoa?"

Denbora pixka bat irabazi nahi zuen, beste bi bizitzak hutsik zeuden.

"Bigarrenekoa, Bixente mairua, eta azkar!"

Emakumeak, esku bakoitzean leihatila bat, ez zuen asmatzen zer egin... "Banoa", esan zion belarrira gizonak.

Eta laster entzun zen etxeko giltza ximplea, plista eta plista, eta berehala eskailerak banaka, eta beheko atearen kankateko handi bi eta erroaren negar bat.

"Gabon", entzun zuen bere emazteak goitik, eta abiatu zen jauzika beheraino, unetxo bat izan zen, eta hiru gizonak oraindik isilik.

"Zu zara Bixente, mairua...? Nik uste nuen handiago eta bizartsuagoa zinela."

"Ni naiz..."

"Zu zara militarrekin lan egiten duena?"

"Nik txerrien ardura dut, besterik ez."

Duinki esan zituen hitz hauek, ez zirudien gaur arratsaldekoa, ez zuen aztoramendurik ageri.

"Bada, etor zaitez gurekin."

"Zamarra bat jaitsiko diot", esan zuen Merzeditasek. "Bai", esan zuen hasieratik hitz egin zuen gizon berak, kaskazuria, baina ez zaharra. Beste biak gazteagoak ziren, txapelbeltzak. Itxura txarrik ez. Agerian, armarik ez. Hizketan jardun zuten andreak joan-etorria egin zuen bitartean, gero jaka eta musu bat ematerakoan hautsi zen andrea, eta negarrez esan zion bi aldiz kaskazuriari, "Ez da okerrik izango?"

"Ez, zaude lasai, udaletxera daramagu itaunketa labur batera, hor izango dituzu berriak, agur."

Eta joan ziren oinez, etorri bezala.

Bederatzi-bederatzietan, haurrak eskolara eraman eta heldu zen udaletxera Merzeditas. Sarrerako gela zabaleko aulki eta eserleku guztiak hartuta zeuden. Aurpegiak ilun, gehienak emakume helduak, amonaxo bat besoetako haur batekin; zutik gazte batzuk, bakarkakoak. Inor ez zen hizketan ari. Harrerako mahaietan gizon gazte bat, adi eta erne zirudiena, idazkari antzeko andre gazte bat mahai berean, telefonoaren ondoan, noizbehinka eta oso labur erabilia beti, eta sarrerako gizon bat txapel gorritz eta armatua, luzea fusila.

Erlojurik ez, eta dena kolpetik geratua bezala.

Eseritako bi gizon ari ziren egunkaria irakurtzen.

Hau dena behatzen zegoela, pentsatzeko denborarik ez oraindik, norbait irten zen ate nagusitik eskuan paper bat zuela, gurutzatu zuen aretoa, di-da, eta olatu baten antzera mugitu zituen erdigunean zeudenak, errespetua baino zerbait gehiagok eraginda... Erraza zen giro zuti hura sentitzea; inor ez zen ausartzen begietara zuzen begiratzea, denak zeharka begira, inork ezer ikusiko ez balu bezala... Honetan, bonberoak, edo hala zirudien txistu min horrek, eta udaleko plazan geratu zen, agindu batzuk entzun, baina zarata hutsean gelditu ziren... Mohamedek oparitutako erlojuan hamar eta erdiak ikusi zituen Merzeditasen, "Dagoeneko, eta ez da hemen oraindik ezer mugitu..." egin zuen hasperen.

Hamaikak eta bi dira harrerako mahaiaren ezker-eskuin dauden ate txikietatik eskuinekoa irekitzen denean, eta nor ikusiko eta Mohamed ikusten du, norbait agurtzen nonbait, irten aurreko agurrean. Egiten du bultzaka aurrera Mohamedekin topo egiten duen arte, isilik, hunkitua, zergatik ote, eta isilik eta hunkitua Bixente ere, zergatik ez dakiela... Eskutik hartuta irten dira biok, inor ikusi gabe, hor doaz korrika, ez daki zergatik baina bere senarrak hitza galdu du, berak ez du asmatzen ezer esaten, ez dute bidean inor ikusi, etxea ikusten dute, zuri-marroia, erdiko solairuan bakarrik bizi dira beraiek, beraiek bakarrik, ez daki zergatik baina pozik ikusi du orain, berak ireki du atea eta bultza egin dio indar handiz eta aldabak pla, errebote txiki-ahul bat, ez daki zergatik... Irekia utzi du atea aurretik irteterakoan, ez daki zergatik, beti ixten du, ez daki zergatik, eta bota dira biak batera, ez dakite zergatik ohera, eta hartu eta eman dira biak inoiz ez bezala, ez dakite zergatik, eta lasaitu dute elkar, lo gelditu dira haurrak atean sentitu dituzten arte...

Txerrikorta etxearen atzealdean dago. Horretxegatik daude hutsik eraikin honetako beste bi solairuak, kiratsa jasan ezina delako. Etxea funtsean zuri-marroia bada ere, zikin kolorea da nagusi. Bixenteren familia bizi da hor, kirats horretara eginak daudelako; senarrari asko kosta zitzaion usain berezi horretara ohitzea han Alkazarzegerren; gizona ez zen txerrikortan geratuko Merzeditas hor egon ez balitz, baina berarekin eta haurrekin munduaren beste muturrera joango litzateke maitasun betearen kondizioa

errespetatuz gero. Baina urdea, txerria, animalia da, gizona bera bezala, eta kirats berezi eta guzti maitasuna hartzen zaio, zakurrari eta katuari bezala; batzuetan izenak ere jartzen zaizkio: Beltxaran, Gorri, Mutur-oker, txikiak direnean batez ere; txerria ere polita baita jaioberrian!

Kiratsa!, bai, egia da, baina maitatzen den guztia egiten da azken finean onargarri eta eder... Bixente jaisten da goizero, hartzen du atzeko bidexka eta usain gozosa etortzen zaio bete-betean, pentsatzen duenean aurkitu duela lan finkoa txerriengan, maitasun finkoa Tiburtzioren alabarengan; egia da aparte samar bizi dela jendearengandik, askotan hobe aizu!, haurrak kexu badira ere beren laguntxoek etxera jostatzerat etorri nahi ez dutela eta... Eta horretaz gogoetan ari dela atzetik taka-taka ukitzen dute, bi hatzeko ukitu bat, alua!, Rico tenienteak identifikatzen da honela txerriak aukeratzera etortzen denean... Txerrien marmarrak eta jateko irriken maska-maskak babestua agertzen zitzaion atzetik gehienetan. Jiratu zen bat-batean; begiz begi zeuden...

"Zer da, Bixente!"

"Jakin ezazu, teniente jauna: ni Merzeditasekin bakean bizi naiz eta pozik; ez didate poz hau erraz lapurtuko."

Barretxo bat egin nahi izan du tenienteak.

"Bixente, nik..."

"Lehenago hilko zaitut."

Tenienteak zuri t'ardi dago, hitz egin nahi du, baina Bixentek ez du bukatu, ezkerreko eskua, lanean kakaztua, aho ertzetik pasatzen du, urduri...

"Beste hitz bat oraindik. Esan didate Udaletxean zer nolako salaketak jaurti dituzun nire kontra... Atzo bertan Herri Komitearen justiziapen egon izan ez banintz, honezkero erreka bazter batean hila aurkituko ninduten agian! Teniente albaitari, ez dut berriz bizi nahi hila banengo bezala; hori baino lehen aurretik eramango zaitut."

Pistola gerrian eta burua makur, atzeraka egin zituen tenienteak bi pauso, jiratu zen estropezuan eta alde egi zuen.

Izerditan geratu zena Mohamed izan bazen ere.

Tenienteak txerrikortatik ezkerretara hartu zuen oinez. Ohitura zuen bezala, ez zuen autoa etxe zuri-marroiaren aurrean utzi, kiratsak ez kutsatzeagatik. Ibilalditxo bat egiten zuen, higienikoa omen zelako ibiltzea. Autora itzultzean, aurrez aurre ikusi zuen, eta ezohiko zerbait nabaritu zion trasteari, eskuin aldera makurtua zegoen. Zer ote, harri baten gainean igoa utzi ote zuen? Ez... baina baliteke gorpila zulatua egotea... bai, halaxe zegoen, eskuineko gorpila plast, hutsa! Orain lanean jarri behar aldaketa egiteko! Eta norbaitek zulatu balio...? Bixentek ez!, ez zion hori egiteko denborarik eman... Jira-bira osoa egin zuen, norbait ageri ote zen. Ez bada... Etxe zuri-marroia bera bakarrik eraikia zen, kilometro erdi bateko tartea utzi zioten etxearen irlari.

Zulatu egingo zitzaion bidean, iltze edo tatxet txiki batek. Gerrera erantzi, automobil barruan utzi eta... Fidagaitz halere, eta erremintak atzetik aterata hasi zen lanean, noizbehinka inguruari beha... "Armadan esaten den bezala, gerran erne dagoen gizonak bi balio ditu, eta eskarmentatuak hiru... ! Ni neu, eskarmentu t'erdiko ere banaiz...!" Hala, bere gorpil aldaketa amaitu zuenean, autora igo eta alde egin zuen.

"Ikusiko dugu gerra hau nork irabazten duen."

Areto hutsean zegoen Rico tenientea bederatzietarako, eta eseri egin zen. Ordu erdi bat egon zen esperoan, txitxirioak uretan edukitzen diren bezala. Irakiten zegoen Bixente heldu eta idazkari gazteak, besterik gabe, eser zedila eskatu zionean. Berehala iritsi zen epailea, eta eskatu zion idazkariari deia irakur zezala. Gainez egin zuen militarrek, "Ohar bat egin nahi nuke hasi aurretik, epaile jauna, mairu jaunak arreta gutxi jarri du garaiz etortzeko, horrek berak erakusten du errespetu gutxiko jendea dela, batez ere arrotza dela kontuan izanik; eskatzen dut ohar hau gaurko agirian argi gera dadila". Epaileak oso lasai erantzun zion, "Arrazoi duzu, teniente jauna, Mohamed jauna berandutxo dabil, baina akusatuaren alde badago zeresanik, agerian gera dadila hau ere", eta tenienteak berriro hitz egin baino lehen altxatu zen Bixente barkazioa eskatzeko, egiatan berandu zebilelako, baina oso gau txarra pasa zutela haur txikienarekin, "Berrogeiko sukarra ezin jaitsirik ibili gara gau guztian, bi urteko neskatxoa ur hotzetan sartuta... barkatu, arren". Egia zela gaineratu zuen epaileak, eta akusatuaren alde esan nahi zuela goizean iritsi zenean, bederatzietan, dei baten nota aurkitu zuela bere bulegoan, honen berri ematen zuena.

Ea nahikoa zen, tenienteari galde, eta, hala bazen, bere eginbeharrera pasako zirela.

Teniente ez zen konforme geratu, erdi barrez esan zuen ironian zerbait; baina hor geratu zen tirabiratxoa.

Berehala irakurri zuen idazkariak deialdiaren testua, eta galde egin zion militarri zer zen akusazioaren funtsa.

Ba, gizon honek, mairua izan eta berandu etortzeaz gain, lehengo egunean hilko zuelako mehatxua egin ziola, eta gero, irteterakoan, bere kotxea nahita hondatua aurkitu zuela. "Armada leialaren aurkako sabotajea izan zen."

"Egia al da hau dena?", galdetu zion epaileak Mohamedi.

"Bai jauna, aitortu behar dut, nire lantokira etorri zen, eta bigarren aldia da; ez da arazo berria, berretua baizik. Nire emaztea, Merzeditas, kendu nahi dit, ni gaixo egona naizela-eta, alkohol arazo larri bat pasa eta gero, eta egia da; baina ni sendatua nago, eta bera bakartua dagoenez, bere emazteagandik apartatua, nirea lapurtu nahi dit, nire lehengo gaixotasuna aitzakia hartuta, eta horrez gainera ni neu Marokoko armadan zerbitzen nengoela bota egin nindutela, gezur borobila, eta gainera, Targist-eko Mehalan oraindik ditudan Sarjentu eta Teniente lagunekin harremanak gorde ditudala eta Errepublikako armadaren kontra subertsio lanetan nabilela. Ez da egia, noski... Horiek dira, bere erdi-egia eta gezur borobilak, ni ikaratzeko darabilzkienak, berriz gaixotzeko eta Merzeditas kentzeko maniobran."

"Hemen badaude argitu beharrak", dio epaileak. "Non mehatxatu zenuen Teniente jauna?"

"Nire lantokian, nire etxean; amenazuka etorri zitzaidan, beti bezala, nire emaztea ikustera eta armadaz gezurrak zabaltzera. Nik Armadan Marokon zerbitu dut, ez dut han inolako arazorik izan inorekin. Han gorde ditut lagunak, nik ez dut Mehalaz ezer esan. Don Tiburtzio, Merzeditasen aita zena joan zitzaigunean Armadaren kontratua hartu genuen, guk jarraitzeko txerriak hazten. Gainontzekoak bere asmakizunak dira, nire emaztea bereganatzeko."

Epailleak gogor egin zion tenienteari: "Teniente al baitari jauna, zuk gaizki egin duzu Espainiako Armadaren uniformeaz jantzita hemen agertzea; armadak ez du hemen zerikusirik."

Baina teniente al baitariak ere zakar egin zuen hitz: "Mohamed mairuak esan dituen guztiak gezurrak dira, ni eta nire bitartez armada leiala desakreditatzeko; hori da bere helburu nagusia..."

Gerrako exodoa martxan

"Gernika bonbardatzen ari dira alemanak...!" esan zion misterio handiarekin Bixentek emazteari, ia xuxurla batean. "Sutan jarri dute, ehundaka hildako, milaka zauritu..."

"Jesus, zer pasako zaigu orain herri honetan!"

"Egunkaria eroatera joango naiz plazara bihar, ezin gara ezer jakin gabe egon... Esan dizut askotan, bakanegi gaudela bizitzen etxe honetan, txerriek baino gehiago jakin gabe! Bai, bihar goizean joango naiz, txerriei jaten eman aurretik..."

"Noiz esan behar diezu kuartelean utzi egin behar dugula txerriena?"

"Eta nola esango diet? Hau da bestea!"

"Bixente, zu zara hau erabaki duzuna, militarrekiko harremana zurea da."

"Ez gogorarazi niri teniente albaitaria, mesedez. Badakizu gerraz gero Komitearekin dudala harremana. Kamarada batzuk gorabehera, ez gara gaizki konpondu..."

"Bada, hitz egiezu."

"Zer aitzakia jarri behar diet?"

"Zure kontzientzia arindu nahi baduzu, beti bezala, esan ni gaixotu naizela, haurdun berri nagoela, amarengana jo behar dudala..."

"Eta gu, nora goaz bi haurrekin...?"

"Ni gaixo nago, ez ahaztu; gu desagertzea da zeuk lortu behar duzun gauza bakarra."

"Eta txerrixo bat hartuko bagenu gurekin?"

"Mohamed, esan Intendentziako kamarada bati 'Agur', besteari, 'Bai, bai...' ni haurdun berri nagoela, asko gaixotzen naizela halakoetan, eta nire amaren etxera goazela egun batzuetarako laurok Bermeora, eta kito!"

"Bermeora? Zergatik Bermeora? Zure ama ez da Bermeon bizi...!"

Mohamed ona da Merzeditasentzat eta haurrentzat, eta txerrientzat ere bai!; baina oso zail egiten zaio gauzak sinpleki ulertzea, eta gero erabakiak hartzea!, oso da ezbaiti. Berak ez daki, baina bere emazteak bai, beste gauza asko bezala, gaitz hori ez zaiola behin ere joango. Amonak esana kabo primerarekin haurdun ezkontzekotan zenean... Marrakechen lagundu zion Begoña izeneko hark ere hala erantzun omen zion, ez zela sekula osorik konponduko...

Gauzak honela dira.

Gaitzaren errua ez dela inorena uste du Merzeditasek, gauza horiek berezkoak dira. Mohamedek berak uste ez badu ere, oso baita minbera.

Eguerdian bazkaritara etorri zenean ez zion senarrak bere joan-etorriaz ezer esan. Lehen hain arduratsu, orain hain axolagabe Gernikako suaz hizketan, ikusi nahi zuen nondik nora bideratzen zuen Bixentek eguna... Eseri ziren bazkaltzera, jan zituzten babarrun gorriak, oso gustukoak zituzten haurrek ere, eta goizean erosi zituen sagarrak jarri zituen mahai gainean, gezatxoak baina gustu handikoak, eta denak desagertu ziren. "Inork nahi du beste bat?", galdetu zuen, eta ez, haurrek alde egin zuten zalapartaka.

Honela geratu ziren ukondoak hule urdinaren gainean senar-emazteak aurrez aurre, baina elkarri begiratu gabe, bi independente, askotan geratzen ziren bezala.

"Zer dio egunkariak Gernikako suaz..."

"Bai, ikaragarria izan dela, joan naiz ale bat erostera, eta seiak ezker agortu omen dira egin dituzten guztiak..."

"Denak?"

"Bai, denak, ez da alerik geratu, hori da jendeak dioena, sartu naiz betea zegoen taberna batean, entzun ditut atetik negarrak eta negarrak, haurrak ere negarrez denak... alde egin dut, ospa...! Horrenbeste negar eta garrasi ez dut sekula entzun... Eta gero, mairuak...!"

"Zer mairu...?"

"Mairuak, ez dakit Mehalakoak edo Erregularrak edo zer ekarri omen dituzten frentetik, arbola eta etxe santuei su emateko..."

"Hori ez da posible, gizona!"

"Baietz... Behin eta berriz hori esaten ari da irratia. Laster hasiko dira gure bila... Hasiak dira barkuetan haurrak Errusiara eta Britainia Handira bidaltzen..."

"Zer da hori?"

"Agian gure haurrak ez direla arratsaldean etxeratuko, ontzietan bidaliko dituztela itsasotik barrena Errusiaraino, komunista hazi daitezen mundua bukatzen bada ere..."

"Ene!"

"Txerriak ere sartu beharko lituzkete barkuetan..."

"Kontu, Bixente, ez da broma izango...!?"

Egiten du plazara, haurrak jostatzen dabilta patioan... begiratzen die banan-banan. Isildu da orain. Badoa korrura, andereñoak hizketan ari diren korrutxora... eta begiratzen die begietara banan-banan, bere apaltasun isil, hauskor, teinkatsu horrekin... Bat, bi, hiru... lau andereño korruan orain isilik... Bat da zahartxo, ezer ez, berrogeita hamarren bat... Denak zerura begira daude, ez dago eguzkirik, baina bai argitasun bat zeruan begiak apur bat itxiarazteko... Zerura begira hegazkinik ageri ote den gaur, Begoña gaintetik baitatoz beti, antiojoak ditu andre nagusiak, eta zerbait esan dio gazteenari, sartzeko haurrak, bai, haurrak sartzeko, hegazkinak hona ere etorri eta bonbaka hasi behar balute bezala patioaren gainean. Joan da gaztetxoa eta eraman ditu haur guztiak, ez isilik, buila bizian batzuk, joan dira noizbait eta desagertu dira hirurogeita zazpi haurrak, patioko atea itxi dute, kask, mekanikoa da hotsa. Eta kito. Gizona oraindik hor da, konturatzen da andre horiek bere zain daudela, bera hizketan hasteko zain edo agian zerbait esan behar diela... Eta esan die andre zaharrak, edadekoak, lagunei: "Zoazte zuek ere barrura", eta badoaz haren laguntzaileak, norbaitek bultzatuta bezala baina bakoitza bere aldetik... "Bizente jauna", esaten dio orain zuzendariak, besapean eskuak, galtzarbeetan, titi erorietan gordetako eskuak gizonari erakutsi nahi ez balizkio bezala; luzatu zuen kokotsa pixka-pixka bat, eta esan zion berriz: "Bizente jauna, zu zeu askotan etorri zara haurren bila, eta bakarrik joan zara batzuetan, bitartean zure emaztea heldu delako, Merzeditas, beti txukun txerrien artean, eta teniente txikiarekin joaten zen askotan... Nik ez dizut inoiz ezer galdetu, eta orain ez

galdetu ezer niri, ez baitakit ezer. Asko dakiena Jaungoikoa da. Hor egon behar nuelako isilik begira dakit dakidan apurra. Baina esango dizut zerbait, andrea naizelako... beti gurasoei begira zahartu naiz, inbidiaz. Amona bati haurrak gustatzen zaizkion bezala egon izan naiz zure haurrei begira, eta haur horiek kentzen dizkidatenean gaur bezala, bere aitari esan behar nioke umerik ikusi gabe infernuaren erdian erre behar lukeela... teniente horri utzi diolako haurrak eramaten."

Eugenio erretorea bere eserleku nagusian zegoen ezer esan gabe, zeru urrunari begira balego legez; zerbaiten barrutik hodei ertzera so. "Gernika suntsitua, berehala sartuko zaizkigu Bilbon..." Eta euria ari zuen, martxa militarrean bezala, danborrak drun-drun, euria ez lodi, baina lukana berdearen gainean erorketa arin bat ari zuen...

Gizon bakarra, bakarregia askotan.

Ez ordea lana gehiegi pilatzen zitzaiolako; goizean goiz hasten ziren egunak, zazpietan meza, baina gaur etorri diren entzuleen artean ikusi du laugarren aulkian hondoa jota Bixente mairua... "Hori ere zerbaitetarako egongo da ba hemen; aurpegi horrekin, tristura horrekin, tropatzarrak ia bertan ditugula ezer egiteko gai ez balitz bezala..."

Enkargutxo bat bidali dio Joxerekin, sakristauarekin, etor dadila gosaltzera.

"Hemen dugu, hemen dugu gizona, Bixente; nola zatoz hain goiz? Ez da bada ezbeharrik izango... Busti zara bidean? Eser zaitez mahaira nirekin... Ekar iezaioek aulki handia, Joxe, iltze handiko aulki handia, eser dadila lasai... Aurrena gosal dezagun, nik neuk Ave Maria esaten dut, zuk nahi duzuna esan... Har ezazu kafesne hori beroa!, hoztu baino lehen..., gero esango dizkidazu esatekoak, gero, nahi duzuna, baina hartu ogia eta gurin pixka bat ere..."

"Nola dago familia", segitu du erretoreak, "Ongi, ez? Haurrak...? Baita ere! Zer pasatzen da, bada? Esan... Beno, egizu negar, behar baduzu... Hori ere egiteko gauza da-eta... Kristok berak, Ama Birjinak...! Nik neuk zer esanik ez... Nik galdetuko dizut, Bixente, eta zeuk baietz edo ezetz esan... Haurrak ongi daude...? Emaztea bai, ongi dago...? Orduan dena gaizki zebilek! Eta teniente albaitaria...?"

"Seme-alabak eta Merzeditas, denak ostu dizkit!", lehertu da Mohamed.

"A, baduk negar egiteko arrazoirik... !"

"Bai!"

"Beno, ba, konforme, egin negar, baina hasi jaten, beharko duk eta. Koño, hori ere egin dik alu horrek!! Familia osoa ostera ausartu duk animaliatxo hori... Barka, Jauna! Eta txerriak norekin, orduan?"

"Oraintxe sartu ditut kamioian, bi bidaiak, eta lagun portuges baten txerrikorta batera eraman ditut, mendira."

"Hi, Bixente, nola ostuko zizkian haurrak eskolatik tenienteak, zerri hori, hori bai zerria Bixente, Jaunak hau barkatuko ahal dit, beste aldekoetara pasa denean?"

"Beno, egia esanda, erretore jauna, ez omen zen pertsonalki tenientea izan, baizik eta honen izenean bere armadako laguna, gauza bera."

"Baina gauzak zuzen kontatu behar dituk, ez gutxi gorabehera, Bixente..."

"Egia, barkatu, baina hau zen, hau omen da, gaur goizeko egia, eta Merzeditas, amaren partetik zihoala, nonbait... Ez dakit neronek ere zer gertatu den..."

"Trapu zuzena duk andre hori... Barka, Bixente, baina nola hartu dituzte eskola batetik inoren seme-alaba propioak tenientearen izenean, lapurretan? Ez al hau honek harritzen?"

"Neuk joan behar nuke denuntzia egitera..."

"Ez, alde hortik...! Hor harrapatzen bahaute, hilk haute... Berandu habil dagoeneko... Ez haiz irtengo hemendik. Hemen gordeko haugu, Mohamed... Joxe!, etor hadi. Tropak sartu baino lehen, eraman ezak gure laguna ganbara beltzera, han egongo duk seguru. Bihar ikusiko diagu zer gertatzen den Bilbon, baina oraingoz eta bihar arte ganbarako sekretuan gorde ezak, ez iezaioz piztu argi txikia besterik. Ahaztu gabe, eguerdian bertan emaiok gero bazkaria... Neu igoko nauk arratsaldean, beste joan-etorriarik ez. Inor galdezka baletor, guk mutis forotik, Xekundino Etxeberriak ederki asko egiten zuen bezala Basteroko Merkatuan! Eta hi, Bixente, ez hadi ikaratu, eta goiko gordelekuan egon lasai. Gainontzekoa nire kontu... Hik ez dakik oraindik gerra zer den! Denuntzia jarri hik? Gizajoa!"

Goizeko hamaikak ziren harrerako txirrina entzun zenean, Joxe sakristaua aztoratuz: Molaren tropak sartuak ziren, salaketaren bat izan zitekeen, don Eugeniok ez zuen inoiz ezkutatu bere abertzaletasuna ez pulpitan ez kalean.

"Eugenio Erretore deituarekin hitz egin nahi nuke."

Joxe ikaratu zen, baina hala ere:

"Baduzu zitarik, teniente jauna?"

"Ez nuen uste beharko nuenik, mairuak ere gabe hartzen dituela jakinda."

"Nola esan duzu, jauna?"

"Bai, Eugeniok hartu izan dituela alde zurreko gaztigurik gabe mairu infidelak ere."

"Barka, ez dut ezer ulertzen..."

"Entzun, sakristau jauna... badakizu zer esan dudun, mahometanoei ere ez diela ordurik eskatzen, eta Espainiako Armadako ofizial bati, ofizial zauritua izanari gainera, bai!"

"Ez dut oraindik ulertzen, teniente jauna..."

Joxeren aurpegiko azala kafesnearen kolorea hartzen hasia zen.

"Orduan nahiago duzu nik armadako paperak ateratzen hastea; komandantziako karpeta honetatik aterako dizut bat..."

Kafearen kolorea argitu eta kafe kriolloaren kolorea hartzen ari da Joxeren larrua, salaketaren papera baita karpeta gorri horretatik atera behar duena biboterre honek.

"Komandantzia honek agintzen dio Begoñako erretore don Eugenio Artetxe jaunari aurkez dadila berehala agindu hau bereziki daraman teniente berarekin... Entzun duzu?"

"Bai, teniente jauna."

"Irakurtzen badakizu?"

"Bai jauna..."

"Lagun gisa hitz egingo dizut... Nahiago duzu orain bertan ni bisita bezala pasa, edo patruila bat ekarrita zure apaiza komandantziara eramatea...? Galde iezaiozu don Eugenioren; detaile pertsonal bezala eman nahi diot aukera hau!"

"Barka, teniente jauna, ez zaitez haserretu..."

"Zer haserre, gero!", eta bultza eginda sartu zaio pasilloan aurrera... igo ditu, dituzte biek!, ile leuneko eskailera gorriko sei mailak...

"Don Eugenio!", eman du alarma Joxek.

"Zer!, seinaleak egiten, gainera?"

Horretan agertzen da eskailera buruan don Eugenio betaurrekoak eskuan.

"Hemen, teniente jauna haserretu egin zait!"

"Zergatik, bada...?"

"Berorrekin hitz egin nahi omen du... !"

"Zer duzue hemen gure armada loriatsuaren kontra?"

"Teniente jauna, eser zaitez, zer dela-eta...? Joxe, ez dut ulertzen zergatik ez duzun pasarazi berehala! Eseri, teniente jauna..."

"Ni neu ere nerbioso samarra nauzu, barka. Baina oso larria den une bat ari gara bizitzen, ez gaude jolasetarako eta itxurakerietarako... Zazpi gizon ikusi ditut botatzen gaur Derion! Esan beharra al dut gerra bizian gaudela?"

"Ez duzu beharrik, badituz berriak... nahikoak; uste al duzu ikaratuko nauzula planta lotsagarri honekin? Beldurra diet armei, gerra denboran gehiago, baina gerratean ere izan liteke gizon, eta apaiz ere bai... Ezagutzen gara aspaldi, teniente jauna, etxe honetara etorri zara behin baino gehiagotan, armada leialaren trajearekin... Dena dela, esango didazu zer bekatu egin dugun..."

"Zurekin hitz egin nahi nuen... Neurez etorri natzaizu."

"Eta modu honetan?"

Kokotsarekin markatzen du Joxe tenienteak.

"Joxe... zoaz lasai!"

Kopeta zimurtu du Joxek, nabarmen, atea itxi baino lehen. Baina don Eugeniok ez du ikusi sakristauaren haserrea.

"Zer dugu ba?"

"Hamar izen irakurrarazi dizkidate tribunal militarrean..., *juicio sumarísimo*; ez dakit zergatik niri... Zeurea zen azkena, lapitzaz idatzia."

Erretorea, isilik eta zuri gelditu da, baina osorik. Eta ahotsa ere zuri, kolorge:

"Zer egin dut nik, bada...?"

"Jakin dute zuk etxean hartu izan duzula behin baino gehiagotan gure armada loriatsuko kide bat mehatxatu izan duen mahomatar bat."

Don Eugeniok tinko begiratu dio tenienteari. Pasa zaio eztarriko lakartasuna, lasai bota du:

"Eta zerrendan nago."

"Kamioneta zain dago, sei gizonekin."

"Noizko da sumarisimoa?"

"Bihar goiztirian."

"Besterik gabe?"

"Halakoxea da gerra."

Jaitsi ditu Eugeniok berez, hitzik egin gabe, ile leuneko sei mailak, atea gurutzatu duenean gelditu egin da unetxo batean otoitza esateko, eta esan dio karpeta handia duen ofizialari: "Orain zure esku naukazu". Honetan ireki zaio kamionetako atea, irten dira

lau soldadu arma luzeekin, utzi diote sartzen apaizari, itxi dute, pank!, atea, sartu dira gero aurrean tenientea eta karpeta gorri zanpatua, Eugenio erretorearen kondenarekin...

Eta irten da zarata txikiz.

Lotsatuta bezala.

Joxe igo zaio Bixenteri ganbarara, eta besotik hartuta jaitsi du kalera; sartu du Bixente bere ondoan don Eugenioren sotanarekin egina dagoela dirudien auto batean, abiatu dira noizbait, eta Derio bidean doazela "Exteban ehorzlea lagun handia dugu", esan dio sakristauak. "Aipatu izan dizkit horko ikarak, eta pasadizo batzuk ere bai. Askotan ez dituzte hiltzen graziako tiroa jo arte, eta besteetan han uzten dituzte ezin hilik, sufritzen..."

Hau da Joxek don Eugeniori gertatzea espero duena, eta Bixentek ulertzen ez duena oraindik.

"Exteban ehorzlearen esperientziak eta trankiltasunak lagunduko du, eta gainontzean Jaungoikoak nahi duena gerta dadila. Eta guk horretara joan behar dugu Bixente, Jainkoari laguntzera..."

Bixenteren bidaia prestatu bitarteko gertaerak

Arratsaldeko bostak eta iluna dagoeneko!

Beti bizi izan naiz bakarti, ilun, triste; baina gaur bezain triste sekula ez. Beti falta izan zait norbait, baina orain bezala hiru, hiru!, inoiz ez. Eta eguna ere halakoa... Baina ari naiz lanean, soldata ere ordaintzen didate, orduak sartzeko eta orduak irteteko; eta gero jateko otorduak mahaian, ohea gauean, lagun onak... Bakarrik, ohean nago neure gelan eta Merzeditas dut buru-bihotzean, eta haurrak; baina badakit egun batean nireganatuko ditudala, bat behintzat nirea propioa da, zuzeneko. Baina nire maisu don Eugenio apaiz onak erakutsiko dit noiz eta nola gauzak bideratu... Hemen noa tren bete honetan, jendea inoiz baino pozago eta zalapartatsuago, Gabonak baitira, jai handia... Orain sei hilabete pasa zuen herri honek samindura handiena: galdu egin zuen gerra, eta nola! Sua, bonbak, heriotzak... Ondo gogoratzen naiz, gauza izugarriak gertatu ziren, neronek ikusia: bete zituzten eskolak eta komentuak euskal prisioneroz, milaka jende, gazte, emakume, apaiz eta guzti fusilatua; kamio bazterretan, etxeko baratzeetan, baserrietako pareten kontra akabatu zituzten nahiko fidelak ez zirelako, kontrarioak zirelako ustean, batzuetan hainbesteko politikarik ere gabe, don Eugenioren egin zioten bezala...

Hau bai dela gerra bizia, sinestezina, basatia! Eta poliziaz eta guardia zibilez betea dago dena, beti zelataka, beti makur, beti zain, zain! Zeren zain? Neronek ez dakit, ez dut ulertzen, baina paperak asko egiten dituzte hemendik hara joateko, handik hona etortzeko, eta paper bakoitzak badu bere izen berezia... Niri ere egin dizkirate batzuk, baina nola lantegian egiten ari garena armak diren, militarizatu gaituzte eta errazago ibiltzen gara...

Hemen jarraitzen du trenak, eta laster gara Bilbon... Argi, Bixente!, bestela galduko haiz... Jaisterakoa beti beldur naiz teniente horrekin aurkituko ote naizen, baina ez dut ikusi. Norbaitek esan ere egin zidan, ez dakit Joxe sakristaua izan ez ote zen, frentera eraman zutela armadako mandoak zaintzeko; mendiko posizioetara janak eta perolak eta metrailadoreak eta gauza asko eraman omen dituzte mendiz mandoekin, eta lau hankako animalia horiek zaintzera deitua izan omen da teniente arraio hori.

Sikiera txerriak izan balira, zerbait praktikoa.

Auskalo, beharbada zigor bezala; liskar bila dabil beti jendearekin!

Treanean jendea altxatzen ari da, maletak eta aterkiak nolabait eskuetara lotzen, bizkarrera eramaten, jaitsi baino lehenago ere... Hor goaz denok ateetatik eta gauzak leihostatik... Orain, azken irteera heltzean da txarrena, atea estu eta jendea bizkor, gaur gaueko afaria ez huts egiteko, bada Bilbon jendea herrietara eta herrixketara joan nahi duena... Hemen, behin, geltokiaren erdian nengoela, ikusi nuen bat-batean tenientearen platoko bisera, pin, pin, gora saltoka bezala...

Barruak bi itzuli handi eman zizkidan, kordea galarazteko modukoak.

Bat-batean geratu egin nintzen. Nire inguruan jendea haserre geratu nintzelako, baina ezin mugitu zangoak, ez aurrera ez atzera, elbarrituta geratu nintzen...

Gero begiak gehiago zorroztu nituenean gauzak ziren bezala ikusteko, dena baretu zen horizontean, buru batzuk, beste konpas bat hartu zuen geltokiaren nibel hark, baretuxe dena, husten ere ari zen, eta ni ate nagusira heldu nintzenean neure antzeko bat neukan aurrez aurre, neska polit bat bakarti eta bila, ez dakit zeren bila, agian ni bezalako bakarti baten asteko soldataren bila.

Gabon afaria dugu klandestinitatean.

Hitz berria dut hau, behiala "Gerra" entzun nuenez geroztik gehien durduzatu nauen berba. Ez dakit ziur zer esan nahi duen, baina isileko zerbait da. Eta tenientetxo horren armadaren aurka. Ilunpe beltzean ailegatu naiz Serorategiko atze aldetik... Don Eugenio orain dagoen auzoan!

Han zeuden Gabonaren bakean Eugenio erretorea, etxetik gertu eta inguruan Joxe sakristaua, Joxemari Orradre bakegile, don Inozenzio Munita baso eta oihanen zaindari. Ez ziren planta handiko gizonak, eta lehen ikustaldian ez ziren sumagarri ere; nire agurren zaratotsa entzun eta gero ohartu nintzen dar-dar hartaz, argi hartaz, hobe. Nolabait esateko, guardia zibilek izkinaz jositako bere txarolaren tximist argiarekin itsutzen zaituzten bezala, jaun hauen begietan ipurtargiaren apala nabari da, inor mintzen ez duen distira.

Eugenio hizketan ari zen, bakarrik zirudien, Joxe ondoan lurrean eserita, eta bi argi xumeak aurrean.

"Bixente, etorri haiz!", esan zidan erretoreak. "Pozten nauk... !" Beti zegoen Eugenio pozik ni ikusten ninduenean. Eta min ez ematearren galdetzen zidan familiaz, galdera sakondu gabe... eta eskerrak emanez botila ardo bat atera diot hulezko poltsatxotik, magiaz bezala!

"Eskerrak hiri, hire lanari, edango diagu ardo hau... bestela honezkero egarria ederki kendua neukan, ja, ja!"

Neuk baietz, pozik... Nik ere barre egin dut, pozik nago oraindik ere egarri egoten ahal delako don Eugenio fusilatua.

Eta orduan konturatu nintzen aurrean neuzkala bi argi... orduan konturatu nintzen bi kandela zuri borobil eta eder zirela, eta aurkeztu zizkidan Joxemari Naparra eta Belkoain pinutegiko defendatzaile Inozentzio Munita: kandela santuak, bereziki gau honetarako Kantoi Berrian eginak. Ez zuten hitzik esan, baina bai berpiztu alai asko 1937ko Gabon eder eta triste honetan.

Afari hura Jainkoari eskerrak ematekoa ere bazen.

Eta bitartean, ez izpiritu, ez kandela, ezer esan gabe zegoen Joxe sakristauari, "Zer duk, Joxe, ez al duk ezer esan behar?", galdetzen dio don Eugeniok.

"Bai, bai, ni oso konforme nago bisiguarekin eta baratxuri zoparekin eta, batez ere, Bixentek ekarri duen ardo politarekin, ikusi besterik ez dago kolorea..."

"Baina zerbaitetan ofenditu haugula ematen dik, mutur horrekin eta hitzik atera gabe... Zer duk? Esan ezak esan behar duana, hara!, kandelak ere mugitzen ari dituk eta..."

"Ba... ez naiz ausartzen, don Eugenio."

"Tia, tia, esan ezak, bestela afaldu gabe geratuko gaituk eta!"

"Bixenteren emaztearekin topatu naizela Bilbon..."

"Merzeditas?" irten zitzaidan bihotzetik.

"Bai."

"Zer esan dizu?"

"Ez ikusiarena egin diot."

"Baina... !"

"Lasai, Bixente..." esaten dit apaizak, eta bere laguntzaileari, "Nola ez didak niri ezer esan, babua!"

"Justu honakoan izan da, neu iristerakoan heldu da Bixente..."

"Non ikusi duzu?"

"Geltoki nagusian... Barka, e, Bixente."

"Hain juxtu!", egin dut oihu.

"Juxtu, zer?"

"Ni heldu naizenean ikusi uste dut jende artean, urrun, baina teniente txikia zen ordea..."

"Noski", dio Joxek berriz nire tristura ikusita. "Ezer ez esatea hobe zen... Baina hasi naizenez esan egingo dizut: ni ez nintzen ausartuko, zure andreak berak ukitu nau bizkarretik, 'Sakristau jauna', esan dit belarrira, 'Sakristau jauna... Non da nire senarra?'"

Senarra esan du! Nire galde egin du!

"Beharbada zerbait esan nahi du honek, Bixente. Zer diok hik, Joxe... Zer tonutan hitz egin dik..."

Joxek buruari eutsi dio eta ahaleginean ari da, nolatan esan dion "senarra" nire andreak, nolaz hitz egin dion nitaz Merzeditasek! Ordubete egon dira hitzari bueltak eman eta eman, Joxek gero eta urrunago ikusten zuen, edo entzun, hobe, hitz haren tonua; Eugenioren gosea piztu ere egin dio, eta afaltzea proposatu du, jalea baita; Joxek ere zulo bat topatzen du estomakan... Azkenean hori erabakitzen dute: bi kandela eder haien inguruan eta ohorean ere, Joxek ekarri ditu sukaldetik serorak arratsaldean prestatuta utzi dituen guztiak eta jan-edaten hasi gara sagardo, ardo, baratxuri zopa, bisigua, betiko ardi gaztarik ederrena, tradizioan, intxaur eta goxoki eta guzti, serorak don Eugeniorentzat kontrabandoz ekarriak, badakielako fusilatua izan zela, eta ezin izan ziotela gose-egarria kendu... Bazirudien gaia agortu zela, jan-edanak aipa, ni isilik... Bapo konplitu dute tradizioarekin, eta kafea eta puru eder eta guzti, hainbeste diskutitu ondoren gogoratzen dira nitaz azkenean, eta don Eugeniok berak:

"Eta zer esan dik ba andreak senarraz?"

"Bai! Zer esan dizu... nitaz?"

"Zutaz... zure semeaz zegoen kezkatuta, badakizu?"

"Zer pasatzen zaio mutikoari?"

"Gaixo dagoela... Pulmonia edo... horrelako zerbait."

"Zenbateko larria da hori?"

"Hilzorian egoteko adinakoa ez noski, ez hadi estutu..."

"Mezua bidali dit Merzeditasek ordea... Eta nire seme bakarra da! Zergatik mezua, oso grabea ez bada?"

"Ez dizu espreski bidali... Joxe bidean aurkitu duelako nahi izan dizu berri bat bidali, aferak izan lezake soslai hau, ez larritu, egon lasai."

Hau ezina da, ezin naiz lasai geratu; ez nuen sekula pentsatu Xabierto gaixotu zitekeenik ere, eta oraintxe hilzorian ikusten dut! Jesusek, Mariak eta Alhak lagun diezagutela!

Gerra aurrera doa

Larunbat haietako batean Bixente, ni neu, trenaren zain nengoen euri giro ilun eta hotz batean, aterki beltza oraindik ura zeriola porlanezko solairuan putzutxo bat zabaltzen, horrixegir begira nengoen, haizeak astintzean inguruko platanoei eragiten zien txistua entzuten. Ni asko tristatzen ninduen honelako eguraldiak, ez naiz ohitzen giro trumoitsu honetara. Eta Eugenio erretoreak eta Joxe sakristauak, berriz, horixe behar teilatupean epel eta gozo babestuta sentitzeko.

Guk, berriz, Merzeditasak eta nik neuk, eguzkitan eta hondar berotan behar ditugu oinak itsatsita, txoriak bere habian bezala sentitzeko.

Zer egiten duten Merzeditasak eta armadako ofizial batek ohe berean, nik ezin uler.

Militarrak gerra barruan pozik sentitzen omen dira; tiro hotsak maite, nonbait. Entzun izan diot don Eugenioren, armadan, beren artean, Gora heriotza! Oihukatzen dutela...

Trenak hemen behar luke... Ez nago bakarrik, askotan bezala, gizaseme bat heldu da, eta ni neu bezala, bakarti, beste muturrean geratu da. Tokia da txikia, eta nolana hiru gertu geratzen zait, bonbillak asko argitzen ez bagaitu ere. "Gabon", esan dit azkenean, lehor. Ez da ni baino berritsuagoa. "Gabon", erantzun diot.

Bere ahots berdina irten zait!

Baina ni ez naiz honengatik lagunago sentitzen, beti nago bakarrik, ni neu nire buruarekin, baina bakar eta askotan hutsa... Hemen dator trena, beti bezala, betea; ordua da, eta larunbata izatea. Hemen dator aspaldian egin dudana lagun berri bakarra, ni bezalako Mohamed bat; orain nigana arrimatu behar izan duenean estu gaude hemen, ohartu naiz familiako usainaz; badugu marokoarrok lurrin berezi bat, beltzek ere berea duten bezala, bestalde; ez txarra, ez kiratsa, talo borobil bigunak egosten dituen labe maitagarriaren urrutiko usaina da hau... Oraindik ez ditut ikusi bere begiak, begi beltzak, baina nahikoa dut orain artekoa sumatzeko... Ikusi dizkiot behera begira. Seinale ez dagoela etxean, han balego, Tetuanen, Xauenen, Larachen, Alkazazgerren, nire, gure hondartza eder hartan, edo Melillako Restigan, itsasoan, edo barruko lurretan, Targuisten, orduan begi horiek argi eta xuxen begiratuko lidakete, edo lizukete, ni zu banintz, anaia, Mohamed. Bakoitza bere etxean ezberdina baita... etxetiarrago, nagusiago. Bakoitza bere etxean... sentipen hau oso da berezia gure artean. "Hemen zabilta?", galdetu diot ahots beheraz, ia belarrira. "Bai..." Besterik ez. Treneko mar-mar lodia, hitz pilakatu eta nahastuz osatutako zurrumurruak behartzen zaitu zeure mintzoa altxatzera, eta ez da ausartzen hori egiten tren honetako estranjerian... Isildu egin gara. Bai, hitz egingo dugu gero tren honetako arramantza-zaratatik irteten garen bezain laster.

Batera irten ginen, egin nion gonbita, ez tea mendarekin eta azukre koskorrekin kikan hartzera, baizik geltokiko kantinan ematen zutena hartzera; zutik, jendartean hemen ere, limonada bana eskatu genuen eta hala izan genuen elkarren berri. Mohamed Melillako inguru txiki batekoa zen, Mehalan soldaduska egin; lana eskaini zioten

hargin bezala eta hor ari zen Mohamed hau, neure anaia, baserri bat berritzen; aste horretan bertan hasi berria.

Mohamed hark eman zion Mohamed honi Bilbon marokoarrek zuten biltoki baten berri.

Han ikustekotan geratu ginen biharamunean, igande goizean, lasaiago hitz egiteko, eta giroa gustuko banuen bertoko bazkide bezala izena emateko, Mohamedek berak aurkeztuko ninduela. Oraingoaz hamazortzi zirela, eta ona zela beti herritarrok elkartuta egotea, laguntzeko... Eta hala agurtu ginen.

"Bihar arte", eta bai, "bihar hamaikak arte."

Gau hartan, ohi bezala, Bixente don Eugenio agurtzera joan zen. Euria ari zuen oraindik, eta han zegoen apaiza erortzen ari zen urari bedeinkatua balitz bezala leiho irekitik begira eta zorroteneko hots lodia entzuten; gustatu egiten zitzaion musika hau.

Han zeukan eskura, beti bezala, Joxe sakristaua, eta poztu zen Bixente ikustean, "Kafe bat ekarriko dugu, don Eugenio...?" "Bai, eta kopa txiki bat eta purutxo bat... Bien, bien; ondo habil, Bixente...? Hirezat badiat bada enkargu txiki bat... Herenegun, ostegun arratsaldean, bostetatik seietara nire txandan nengoela, konfesalekuan..."

"Elizan agertzen hasi zara?"

"Bai, Bixente, bai, konfesalekura joaten hasia nauk, baina nire izenik agertu gabe... Eta ilara handia izaten diat zain, jendeak isilekoak esan nahi dizkio norbaiti, ezin baitu inon hitzik egin... Nik entzun egiten zieat, hitz egin, oso gutxi, behar-beharrezko formulak besterik ez... Eta halako batean andre ezezagun baten ahotsa. Ikara handirik gabe eta niri hizketan. Nik saretxo artetik ez diat sekula begiratzen..., sekula edo, eta bistaz gaizki, eta ilun elizan... 'Bixente Mohameden alarguna naiz', esaten zidak."

Berriz etorri zait lehortasun hori eztarrira. Baina don Eugeniok nire ikarari kasurik egin gabe jarraitzen du: "Eta nik 'Nola, alarguna?', galdetu nioan. Ez nekian nondik nora zetorren, ahotsaren tonua ez zuan garbia, bihurria ere iruditu zitzaidan, tranpaz ari ote zen-edo pasa zitzaidan burutik, tenienteak gobernu militarrean berriz salatzekoren bat... Larri nengoan, benetan, Bixente! Baina andreak orduan 'Isilpekorik esan nezake lasai?' 'Zure eskubidea da esatea' erantzun nion, 'eta nire obligazioa eta erresponzabilitatea zuri nire fedearen garantiaz entzutea, zeuk ikusi'.

'Nahiago nuke zuri begietara begira aurrez aurre hitz egin, hemengo ilunpe honetan baino'.

'Zeuk hori nahi bazenu, prest nago zure apustu horri eutsi eta zeure kondizioetan hitz egiteko...'

'Bai?'

'Bai, nire apaiz hitza zurea da, hau da dudan guztia'. Eta hala geratu gintuan, Serorategira etorriko zela bakarka elkarrizketa izateko... Zer deritzok, Bixente...? Bai, neu ere halaxe geratu ninduan konfesalekuan eserita, hitzik gabe. Baina, hire Merzeditas, onerako edo txarrerako dator? Noren alde eta noren kontra...? Hik hobeto ezagutu behar duk!"

"Emakumea da, emea, don Eugenio, andrazkoei ez diet ezer antzematen..."

"Nik gutxiago!"

"Berorrek, erretore jauna, aspalditik entzuten dizkie bere bekatuak."

Ez zaio gustatu don Eugeniori entzunaldiarena, eta bizi erantzun du:

"Eta hi oheratu egin haiz beraiekin, koño! Baina esaidak zer usten duan, behintzat, Merzeditas nigana etorri aurretik..."

Nik neuk esaten ahal niokeenak ez zuen asko balioko, nik uste ez bezala gertatuko zen, seguru nengoen horretaz...!

"Nire alde eta tenientearen kontra dator, hara nire bihotzak zer dioen!"

"Hara, euria hasi dik!", eta don Eugenio bere zeregin berezi hartara jarri zen ostera, zorroteneko uraren isuriari erne.

Betiko aulkian kuluxka bat egin eta, laurak ezker, burua errota bezala bueltaka zebilkion Eugeniori. Euririk gabeko arratsaldea; haizetsua ordea, hegoa. Joxe ere prest harrerarako. Biak txirrinaren zain. Erretoreak ez zuen txirrina entzun, Joxek jarri zuen jakinaren gainean: "Pasako al dut?" "Bai, noski...", eta sakristauak bere eskuinean zeukan andre txiki argaltxo, kopeta gaineko gurpil antzeko motots labur haren puntatik berari begira eta hizketan: "Arratsalde on."

"Eskerrik asko honaino etortzeagatik, estimatzen dut zure bisita."

"Zuri eskerrak, hartu nauzulako."

Erretoreak jendetasunezko sarrera luzatu behar zuela uste zuen, baina emakumeak bukatutzat eman zituen aurkezpenarekikoak, zuzen heldu zion zekarren gaiari: "Aurrez aurre esan nahi nizkizun hitz hauek, begi isilak ere mintza daitezen argitan. Ez dakit zeu kontziente zaren, baina nik beti estimatu izan dut Bixenteganako izan duzun begirune eta gizadorea..."

"Nire apaiz lana egiten saiatu nintzen lehen, eta hala ari naiz orain ere."

"Entzun, don Eugenio, ez dizut harrokeriaz esaten, baina nahi dut zeuk jakitea bizia zor didazula. Fusilamenduko tiro desbideratuak niri zor dizkidazu. Ulertzen duzu?"

"Bai, Derion bertan ulertu nuen bazegoela nonbait indar handi bat tiroak desbideratzen zituena... Eskertzen dizut. Eta eskertu nahi nioke tenienteari berari ere..."

"Badakit nire senarrak eta zuk ez duzuela nitaz iritzi zuzena, Bixente inoxente bat dela alegia, eta ni piztia bat; baina ni ez naiz uste duzuen bezain gaiztoa eta gupidagaitza, ez eta Bixente ontasun hutsa ere."

"Ontasun hutsa, Jainkoa da."

"Niri gizonak gustatzen zaizkit, apaizik ez; nire senar Mohamedentzat ni naiz bere euskarri bakarra; ez naiz bere amorantea, bere larrua behin bakarrik berotu da, behin bakarrik tentetu zaio. Aingeruki bat da, eta ez dut beragandik semerik izan; egia dena da, Xabiartxo, nire bigarrena, teniente txikiarena dela. Honek ez du esan nahi Rico teniente maite dudarik, ezta Mohamed maite ez dudarik ere."

"Konfesioan esango bazenizkit bezalaxe sinesten dizut."

"Bi gizonak ezin dute elkar ikusi; gorrotoa da elkartzeko dituen, egia osorik ezagutzen ez badute ere. Agindu bezala, aurrez aurre zurekin ari naiz hizketan; egia zor dizudala iruditzen zaidalako, egiaren zerbitzuan, besterik ez. Honek lasaituko nau; ez dakit zagan izango duen eragina, eta sentituko nuke zu atsekabetzea."

"Ez dago halakorik."

"Esango didazu zeuk ere badituzula lehentasunak, nigana baino aurreragoak, Jainkoagan. Baina segur naiz Jaungoikoak, gauza guztien egileak, ulertuko duela gu bion arteko tratua: nahi dugu egiak gure artekoa zuzendu dezala, inori merezi ez duen kalterik egin gabe, Mohamed alferrik mindu gabe. Beharbada jakingo du biok elkarriketa hau izan dugula, beharbada beraganako zure leialtasuna tarteko; nahi duzuna aitoren dezakezu, Mohameden eta nire artekoan funtsezkoa den sekretua hautsi gabe: zergatik kendu bere seme Xabierren ilusioa, hainbesteko garrantzia badu, batez ere jakinik bereganako neure maitasuna egiazkoa dela? Eta txerrietara itzultzeko aukera daukagula, gainera."

"Bai? Eta nola hautsi tenientearekikoa?"

"Hau agian Jainkoaren eskuetatik pasa den zerbait izan da. Horixe da gauzak zuri adieraztera bultzatu nauena: teniente albaitaria kantzer gaizto batek joa dago; lehengoan atera dut frentetik, minbiziak hondatuta. Nik ez dut mirarrietan sinesten, katolikoa banaiz ere, baina Bixentek bai. Zuk, kasu honetan, ez dakit zer pentsatuko duzun, baina gertatuak konpon dezake zaila ikusten nuena..."

Mundu berria

Serorategian Merzeditasekin elkarrizketa erabakigarri hura izan eta lau hilabete geroago hil zen teniente txikia, Armadako Rico ofizial albaitaria; handik hiru egunera, larunbatean, agertu zen Bixente, trenetik zuzenean, oinez, bizialargunaren etxera. Merzeditasek berak ireki zion atea, egon ziren atalburuan bizpahiru minutu ezer esan gabe, ia elkarri begiratu gabe, "Pasa nahi duzu?" esan zion arte, eta aspaldiko Mohamed paper horitua bezain zurbil sartu zen; haurrak ongi al zeuden galdetu zuen kasualki bezala, airean, eta emazteak, korridorean aurretik zihoala, esan zuen tinbre gabeko ahotsaz: "Fatima!, Xabier...!", sukalderaino, eta han zeuden mahaian eserita, aitaren zain bezala baina firme, eserita eta firme, batera, agian tenienteak erakutsitako diziplina berri bat... "Emaiozue aitari musu bana, aspaldi bidaian ibili da gerra triste hau dela-eta, baina etorri da eta ez du berriz alde egingo."

Haurrek bazekiten zer egin behar zuten: "Aita!", esan zuten biek batera; Bixentek biak hartu zituen lepotik eta negar-zotinka hasi zen.

"Joan zaitetze egiten ari zineten etxeko lanak amaitzera... Zaude isilik, Bixente, haurrak arduratuko dituzu eta... Pozik egon beharrean etxeratzerakoan... Ken ezazu jaka, eser zaitetz nirekin mahaira, har ezazu zuku bat afaldu aurretik... Pozik egon behar zenuke etxeratuta."

"Bai, pozik nago... Haurrak asko hazi dira biak; Fatima oso polita dago..."

"Baditu ia sei urte."

"Bai, azkar joaten dira urteak..."

"Gordeta gabiltzanean ere..."

"Baita, gorriak pasa ditut... Fusilamenduak ere ikusi ditut!"

"Zeuk?"

"Guk atera genuen bizirik don Eugenio!"

"Zuek? Nortzuk?"

"Derioko hilerrira joan ginen Joxe sakristaua eta biok soldaduen atzetik, sakristauak, ehorzleak eta hirurok atera genuen erretorea balazo batekin, teniente albaitariak nahita egin zuen huts, nabarmena zen..."

"Guk ere suerte handia izan dugu gerra honetan, Bixente!"

"Nik don Eugeniori esker, orain lana eta guzti daukat fabrika batean, altzairuzko tornu batean ari naiz..."

"Badakit... sagar-zumoa nahi?"

"Oso goxoa dago..."

"Badakizu zergatik utzi zintudan bakarrik, Bixente?"

"Ez."

"Zeu salbatzeagatik... Zu gerrako frentera bidali nahi zintuzten, eta gero fusilatua izango zinen espia bezala. Zer egingo zenuen zeuk nire tokian?"

"Ez dakit."

"Pentsa bi aldiz."

"Pentsatuko dut."

"Bihar erantzungo didazu, orduan... Beste zerbait erabaki behar dut zurekin: zenbat irabazten duzu fabrikan?"

"Berrehun pezeta astean! Larunbatero tanka-tanka, pezetak."

'Ai, Mohamed! Badakizu zenbat balio duen sei librako ogiak...? Ez, zure aurpegira begiratu besterik ez dago; eta haurrak eskolara joateko behar dituzten neguko zapatek?"

"Ez, ez dakit..."

"Orduan, fabrika utzi eta txerrietara itzuli behar duzu berriz, zeren txerriak gehiago ematen du fabrikak baino... Ez duzu inoiz ezer jakin, baina nik neuk bai. Ez al da egia?"

"Bai, arrazoi duzu."

"Afaldu ere egin behar dugu, hurrek eskolara joan behar dute bihar goizean... Baina oraindik gogorazaziko dizut beste zerbait: armadarekiko kontuak, gure ekonomia, finantzak... ulertzen?"

"Bai."

"Defuntua falta denez gero, beste ofizial bat izango dugu horretaz arduratuko dena..."

"Ofiziala behar dute berriz txerrikortan?"

"Noski, nork jango du geuk hazi hainbeste txerri? Armadak! Nork ordainduko du hainbeste diru...?"

"Armadak. Zuk esan duzu..."

"Beraz..."

"Ulertzen dut ongi, bai, beste teniente bat!"

"Oraingoan kapitain bat dugu, don Nemesi Bermudez. Gogoratuko zara izenez?"

"Paper batean idatziko dut."

"Tori koaderno bat, gauzak apuntatzeko bertan..."

"Haurrena bezalakoa..."

"Haurrena da, erosiko diet beste bat... Deitu hurrei eta jarriko dut bitartean mahaia, afaria prest daukat-eta... gustatuko zaizu..."

"Arrautza frijituak txorizo pusketa batekin?"

Goizean Bixente jaiki eta aurpegia garbitzen ari zela konturatu zen norbait zeukala goitik begira. Ezer ikusi ez balu bezala jarraitu zuen, eta esku-oihalarekin amaitu zuenean, supituki begiratu zuen atzerantz eta han zegoen paretaren erdi-erdian erretratu handi bat. Nor da gizon hori? Franco ez da, honek bibote txiki batzuk dituelako; eta hau ez dago jeneral jantzita, jeneralak punta gehiagoko hiru izar dituelako, eta honek ere hiru izar ditu baina punta gutxiagoz inguratua...

"Merzeditasi galdetu behar diot!"

Bere usainera itzuli da, hau da maite duen lurruna, bere emaztearena gogorazten dio, Alkazarzegerko hondartzan biak elkarri hondarra jaurtiz, aitona-amonen gozoa...

"Bixente, nola sentitzen zara etxean berriz?"

"Ongi, oso ongi... Adi ezazu, Merzeditas, norena da bainugelan jarri duzun erretratu hori?"

"Ez dut neuk jarri, armadak jarri du."

"Zertarako?"

"Hau da gure jefe berria tenientea hil zenez gero."

"Hark ez zuen hemen erretraturik, eta beste honek zergatik eduki behar du?"

"Espainiako Armadako kapitaina da, eta mundu osoan Espainiak dituen txerrikorta guztien buru... Ulertzen diferentzia?"

"Zure aita don Tiburtziori ez zioten inoiz horrelako erretraturik jarri."

"Gerrarik ez zegoelako, ulertzen? Orain txerrikortak militarizatu egin dituzte."

"Txerriak ere bai?"

"Txerriak ez dakit, baina txerrikortak bai."

"Eta gu, eta haurrak? Militarizaturik gaude?"

"Adi ezazu, Bixente, Mohamed, galdera inozoak egiten dituzu orain, e! Ez zizkizun, bada, don Eugenio erretoreak erakutsiko? Gauza bat esango dizut: galdera gorri horiek niri egiten uzten dizut, baina ezin dizkiozu Nemesio Bermudez kapitainari egin, e! Biok eta haurrak, denak aterako gintuzkete gure enplegu eta bizibide eroso honetatik! Hau da gure lanbide aberatsena, entzun?"

"Bai, ulertzen dut..."

"Kosta zitzaidan lehen ere, albaiariarekin ere, familiaren bizibideari eusten! Lagunduko didazu beste etenik gabe familia salbatzen?"

"Bai, zin egiten dizut."

"Gainontzekoa neuk defendatuko dut etxe honetan."

Hiru aste pasa ziren. Bixentek begiratzen zuen kaxoi batean gordea zuen koadernoan txerrikorta guztien kapitainaren izena gogaratzeko, Nemesio Bermudez... Nemesio Bermudez beti han zen komunean eskegia, baina ez zen inoiz agertzen bere ardurapeko lantegian. Asteroko txerri saka egitera sarjentu gazte bat etortzen zen, aukeratzeko zituzten elkarrekin behar zirenak, eta kamioiak eramaten zituen mataderiara. "Kapitaina ausente", esaten zion ironia punta batekin emazteari, eta andrea isilik, egia baitzen.

Azkenean, etorri zen. Arratsaldea zen, eta Bixente axolagabe harrapatu zuen, baina lanean, halere... "Arratsalde on", esan zion bere bizkar gainetik, umaldi bateko txerrikume txiki eta alfer bat zerramaren azpitik ateratzen ari zela. Altxatu zen Bixente ahots estrainio eta kementsua entzun zuen bezain pronto.

"Barkatu, kapitain jauna..."

"Nemesio Bermudez nauzu, zer moduz?", eta eskua eman zion kemen handiz. "Zu Merzeditasen senarra izango zara...? Banuen zure berri, noski... Ongi zaude eta lanean... pozten naiz ezagutzea."

"Baita ni ere, kapitain Bermudez jauna."

"Zenbat ditugu une honetan..., Bixente, ez?"

"Bai jauna, Bixente, zerbitzeko..."

"Hemendik aurrera, kapitaina esango didazu, eta kito."

"Ongi da..."

"Zenbat bizilagun ditugu hotelean?"

"Ehun eta zazpi heldu, denera; hamabi zerrama, eta jaio berriak hogeita sei..."

"Denak zuriak..."

"Bai; beltzik izan dugu denbora batean, baina aldi honetan denak zuri-zuriak eta zuri-gorriskak, honako zerrama hau bezalakoak..."

"Preferentziarik baduzu?", galdetzen dio kapitainak irriño batekin, beste zeozer adierazi nahi balu bezala.

"Haragia berdina izango dute, ezta?"

"Ba, ez dakit; egia esan, horixe jakin nahi nuke."

"Neuk ere ez dakit, kapitain... jauna."

"Pertsonetan ere denek dute arima berdina, diotenez, baina batzuek nahiago dute zuria beltza baino..."

"Hala izango da, bai; ni neu marokoarra naiz, dakizun bezala; gure artean batzuk iluntxeagoak dira besteak baino, baina berdin balio dugula uste dut, hemen ere preferentziak dituztenak izan, badiren arren..."

"Barka, Bixente, nolabait mindu bazaitut, ez dut nahi izan..."

"Ez, kapitaina, ez nauzu batere mindu, egi-egia diotsut..."

"Hara, Merzeditas hemen! Zure senarra ezagutu dut eta hitz aspertuan ari ginen... Aste honetako saka aukeratzera etorri naiz; orain libreago nago eta neroni etorriko naiz maizago; orain ezagutzen dut Bixente eta hemendik aurrera elkarrekin lan egingo dugu. Haurrak ongi?"

"Oraintxe nindoan bila eskolara..."

Jarri dira biak txerrikorta ikusten, biontzat gauza berriak, bakoitza berean, eta kapitaina, don Nemesio izan da isilunea hautsi duena txerrien marmarraren gainetik, "Bixente...", esan dio, eta ahots berri bat irten zaio, Bixentek oraindik ezagutzen ez ziona: "Hau biontzat bakarrik, ez dugu zure emaztea gure arduetan sartu behar eta, galdetu nahi nizun... don Eugenio apaiza nola dabil?" Harritu da mairu koitadua, amarruren bat sumatzen du, ez daki erantzun behar lukeen... "Harrituko zara noski, baina don Eugenio nire laguna da". Bixente zurrun, berak esango lukeen lehen hitza don Eugenio saltzea izango balitz bezala... "Ulertzen dut, baina zure isiltasun horrek berak adierazten du baduzula harremanik apaizarekin..." Eta zinez txunditurik utzi duen aitoren ezusteko bat ondoren: "Ez pentsa teniente txiki hori bezalakoa naizenik... Ni ere gordeta eduki ninduen don Eugeniok, zu bezalaxe. Gorriek hil nahi ninduten". Ura eten egin dute gaur ere, mangera tantaka gelditu da Bixenteren eskuetan. Bilduz-bilduz urrundu nahi izan zaio kapitainari. "Baina jakin ezazu ni ez naizela frankista, uniforme eta gradu honekin ikusten banauzu ere". Eskua luzatu zion Nemesio Bermudez kapitainak. "Honetaz hitzik ere ez inori."

Gerra, oraindik gerra

Gerra zibil batek amaiezina dirudi, hasten du jeneralak ahal duenean, eta batzuetan ezin du geratu berak nahi edo behar duenean. Hauxe zerabilen gogoan don Eugeniok ostegun euritsu honetan kaperan meza eman ondoren gosaria hartzeko mahaian esertzen ari zenean. Bart deitu zion telefonoz Bermudez kapitainak, bere informante politiko klandestinoak. "Gabon", esan zion ahots ezagunak, eta ez zekien zergatik egiten zitzaion ezaguna, eta laster, zorrotenari adi euriaren eror-bolumena kalkulatzeko ari zela... "Hi kapitaina haiz... !"

"Bada, asmatu duk! Ez zekiat zer santuri erregutzen dioan hik jendearen ahotsa ezagutzeko, batez ere ni bezala hirekin aspaldi zorretan dagoen batena denean. Nola egin duk, Eugenio...?"

"Nirea erraza duk: euria ari duenean, gaur bezala, zorrotenari eskatzen zioat miraria eta, askotatik askotan asmatzen laguntzen zidak... Baina non ibili haiz aspaldi honetan, eta ihesi! Nolatan alde egin huen agur egin gabe, ezer esan gabe, Bilboko erorketa iragarri gabe!"

"Hiri esango diat orain sekretuan: erorketa horren festa eratzeko deitu ninditean; hiriaren entrega antolatzen ibili ninduan, Larrinagako presoak askatu eta gauean hire parrokiatik barrena fakziosoei ematen..."

"Hala ere, mesede bat eskatu nahi diat... Hi lan horretan ariko haiz orain ere, informazioan... Ez nauk fidatzen hemengo egunkariekin, eta esaidak nola dabilzan bake hotsak gerra honetan. Zurrumurrua besterik ez diat entzuten, baina bazekiat zerbait badela... Bakea, noizko?"

"Zor diat horrenbeste, joango nauk lasaiago beste egun hauetako batean, baina gaur, 1938ko martxoak 22 dituela, gure indarrak..."

"Hire indarrak!"

Barretxo bat egin zuen Bermudez kapitainak, don Eugenioren kolera bertatik bertara ikusiko balu bezala.

"Barka... Francoren tropa loriatsuak Zaragoza eta Huescako fronteetan ari dira erasoan orain, katalanen aurka, laster pasako dik Yagüek Ebro ibaia; beraz, gauzak oso ongi zeudek... guretzat. Kondizio hauetan, nork eskatuko ditik zopak? Errepublikanoek. Honetan zebiltzak aspaldi bakea eskatzen Prieto eta hire herritar bat, Zugazagoitia hori. Orain arte, gaur arte, gauzak Francoren alde zeudek. Honek ditik hegazkin abilak metrailadorez hornituak, eta hauen kontra errepublikarrak abiazioz gaizki. Pena ematen zidak, militar izanda ere, gorrien jende zibila ihesian ikusteak, bere ganadu, oilo eta gurdiekin...! Kondizio hauetan, bakeaz galdetzen didak heuk, eta bakea zaila duk, erabat bentzutu arte jarraituko ditek frankistek. Ez: hik nahi duan bake konpartitua, bi alderdien arteko bakea, ez duk posible orain. Entzun duk nire ikuspuntua. Prentsak esango dik, alde batetik eta bestetik, bakoitzari komeni zaiona. Baina, nigandik hireganako egia osoa, gaurkoa behintzat, hau duk."

"Eskertzen diat hire ikuspuntu jakintsua, sentitzen badut ere. Noiz etorriko haiz bisitan?"

"Datorren astean, larunbatean, gauean jai diat eta; heuk esango didak ni horra joateko zein izango den ordurik onena..."

"Hamarrak... erdiko atetik, hor egongo duk Joxe sakristaua hire zain."

Hamar-hamarretan heldu zen kapitaina serorategiko hegoaldean dagoen erdiko atera. Ez da ate ezkutua, baina bai diskretua, espaloiko kale-argia zuhaitzaren abar batek estaltzen diola. Kapitaina ez dator ageriko kapitain, gabardina luze baten barruan baizik eta militarren buru tentea txapel beltzaz desitxuratua; izan daiteke edozein baserritar prestu, baina ez Espainiako armadako ofiziala.

Atea berez ireki zaio atalburura heldu denean, eta "Gabon" esan dio Joxek atzetik, "ongi etorri". Kapitainak takoi hotsarekin erantzun dio, beti ohi zuen bezala, eta hitzez: "Nola gaude, Joxe?"

"Baten batzuek nahi baino hobeto... bizirik!"

Kapitainak hartu zuen Joxe besotik, esandakoa kobratzeko, "Hilek eta biziek, sakristau jauna, eta badakizu zeuk hainbeste, ez dute gerratean bake garaian adina balio... Eraman nazazu, oraindik gerran gaudenean, Eugenio erretorearengana, eta barkatuko dizut bizia gaurkoz, baina gaurkoz bakarrik..."

"Eskerrik asko, barkatu nire malezia punta."

"Barkatu, sekula ez!", dio barrez kapitainak, Eugenioren aurrean dagoeneko, gelaren sarreran, eta besarkatzen dira, "Nondik datorkik, Eugenio, kandela kirats hau, infernuetan baldin bahago?"

"Kandelak infernuan gehiago pizten ditiagu santuak urrikaltzeko; zeruan, berriz, ez zegok kandela beharrik ere, fede gutxiko gizona...! Ongi etorri, eta afaltzeko ordua denez, goazen mahaian esertzera, hire arreba monjak egindako sukaldea berak zerbituko ziguk, gaur txipiroi beltzak; hik esaten duan bezala, kolore itsusia baina gustua dik ona..."

"Bai horixe, eta Karmele pozik ikusiko diat! Karmele, hor al haiz, hi bai infernuan sutan!" eta mahaitik altxa eta besarkatzen du bila datorkion arreba, "Ongi hago, arrebatxo?"

"Baten batzuek nahi baino hobeto..."

"Berriz ez, mesedez!"

Umore onean afaldu, kopa bana aurrean dutela eta purua ahoan, Joxe gerarazi, eta "Orduan, bakerik ez zegok?" galdetzen dio Eugeniok kapitainari, tertuliarako gonbita moduan.

"Lehengo astean esandakoak balio dik honetarako ere, zoritxarrez... Irabazten ari denak garaipen osoa nahi dik bakea bere erara antolatzeko. Gerran, erregalorik ez!"

"Eta egia al da krimen eta mendeku asko ari dela gertatzen Bartzelona inguru hartan, Errepublikaren aldekoen artean?"

"Bai, frentean gauzak okertzen hasten direnean sortzen dituk barruko politikariak eta erruak bata besteari eranstea. Francoren Inteligentzia Zerbitzua ari duk azpilana egiten Bartzelonan. Espioitza alor berri bat zabaldu ditek, espezie berri bat ugalaraziz:

derrotistak, dena galdua dagoela zabaltzen hasi direnak, lan erraza gerra galtzen hasten denean. Baina, hauetako bat Prieto duk. Gizon argia, sozialisten burua eta Defentsa Nazionaleko ministroa; konturatu duk gerra gaizki doala, eta komunistak atzetik hasi zaizkiok, bere kontra amorratzen. Ohartu direnerako, berrogei pertsona 'paseoetan' hil ditiztek, batzuk torturatik pasa eta gero. 'Galduak gaude', esaten omen dik entzun nahi dion guztiari Prieto ministroak. Zer iruditzen zaik, Eugenio?"

"Gauzak gaizki daudela oso, kapitaina, hiretzat ondo badoaz ere."

"Hotz ari nauk berriak ematen... Eta bitarte honetan, gaur bertan, manifestazio batera deitzen ari dituk Bartzelonan komunistak berak, Pasionaria barne!, eta kontrario dituzten anarkistak deia babesten, 'Abajo los ministros traidores, Abajo el Ministro de Defensa' aldarrikatzen."

"Bai, bai, honela ezin duk Errepublika defendatu", modu berezia zeukan don Eugeniok puruari hautsa kentzeko, beste eskuko atzamar arin luzatuaren kontra kolpetxo batzuk emanda.

"Hori duk", jarraitu zuen kapitainak, "eta kondizio horietan Francok ez dik arerioaren derrota besterik onartuko... Zeren Franco irabazten baino, errepublikanoak ari dituk galtzen, aurrera egiteko gaitasunik gabe. Ulertzen?"

"Noski."

Lehen izan zuen bezala kapitaina etxean apopilo edukitzea izango litzateke onena gerra nola doan jakiteko... Egunkari frankistek zer esango zuten, bada? Komeni zaien gezurra, eta tartean egiaren bat. Nahi gabe ere, asmatu egin behar noizean behin. Paperek, asteak eta hilabeteak zeramatzaten gerra azkenetan zegoela iragartzen. Don Eugeniok askotan erakusten zizkion Joxe sakristauari paperetako kontraesanak. Egunero zerbait harrapatu zutela: herri, herrixka edo baserri bat, zubi bat bota, bide bat moztu, ihesi zihonan kolumna bat desegin hegazkinetatik metrailadoreekin!

Sutan jartzen zen Eugenio gezur horiekin.

Askotan izan zuen bekatu handiko tentazio bat: kapitainari deituko zion. Baina berehala damutzen zen, arrisku handiegia zen eta ezertarako ez...!

Baina behin irratiz entzun zuen, gutxi gorabehera, Bonnet politiko frantsesak agindu ziola Jose Antonio Agirreri, Txekoslovakiako krisia amaitzen zenean, Estatu hau, Ingalaterra eta Frantzia bera ahaleginduko zirela Espainiako gerran armistizio bat lortu eta plebiszitu baten bitartez amaiera ematen. Kasualki edo, Fal Conde karlista Londresen aurkitzen zelarik Espainiaz hitzaldi batzuk ematen. Eugeniok ez zuen kapitainaren zuzeneko telefono zenbakia, baina bere arreba Karmelek bai. "Komeni ote zaio telefonoz aritzea nire anaiarekin, don Eugenio?" galdetu zion monjak, otxan baina tinko. "Zer ba? Jarduna naiz lehendik ere berarekin!" Eta sukaldariak otxanago, "Berak deituta ordea..." Isilik gelditu zen don Eugenio, zorrotenari erne bezala. "Izan ere", argitu zion emakumeak, "anaiak esan zidan behar-beharrezkoa zenean bakarrik erabiltzeko..." Argi zegoen monjak bazekiela zerbait, ematen zuena baino gehiago zekiela, baina beharbada ez guztia, edo ez berak uste zuen adina, eta orduan apaiza ausartu egin zen: "Bilboko isileko sarean funtzionatzen duten zerbitzuekin lotua nago, eta interes berezia duen zerbait komunikatu nahi diot zure anaiari, inportantea da guretzat haren iritzia..."

eta monja apur bat lasaitzeko bere asmazio bat gaineratu zuen, "abadeok zuzentzen dugun sarea da..." Karmelek eman egin zion erretoreari bere anaia militar espainolistaren Zerbitzu Politikoaren telefono zenbakia, "Orduan emango dizut" esanez.

Kapitaina haserretu egin zen, Eugeniori bere haserrea argi erakutsi ez bazion ere telefonoz, baina ez zion erantzun zuzenik eman, eta okerreko deia balitz bezala erantzun zion apaiz inoxenteari.

Ordubete geroago beste telefono batetik deitu zion arrebari, eta argitu zion berriz telefono zenbaki hori kausa larrian bakarrik erabili behar zuela, eta arrebak berak, ez beste inork!

Ahal zuenean, eta aurretik abisatuz gero, pasako zela serorategitik aurreko afari eder hura errepikatzen.

Arrebak pasa zion haserrea Eugenio erretoreari.

Geroztik atsekabetua, eta damutua, dago apaiza.

Kapitainaren deiaren zain.

Egun horretan bertan, ilunabarrez, txerrikortara hurbildu zitzaidan kapitaina, txerriez hitz egin behar zidalako aitzakiarekin. Autoa etxetik urrun utzi zuen. Azken berrehun metroak oinez egiten ari zela inoiz ez bezala sentitu omen zuen kiratsa. Ohi zuen moduan bigarren bizitzara igo gabe, zuzenean joan zen kortara. Argia beti piztua zegoen txerrien zerbitzurako, eta korridore estuetako baten azken muturrean nengoen ni, Mohamed, lau gurpleko karrotxo gainean neukan manteka-lata handi batetik jantokietara banatzen... "Eup!", esan zidan besoa altxatuz; laster ikusi nuen nire aldeko puntan; ordurako ilundu zuen, eta harritu egin nintzen txerrikortan ordu hartan ikusita, ez zen ohikoa, ez zen sekulan nire lantokira hain berandu agertu... "Bai", esan nion bere keinua errepikatuz, eta berrero ere keinuz bera hurbilduko zitzaidala, jarraitzeko lanean, txerriak hasiak ziren bere protesta antzeko zerbait egiten, jan ordua sakratua da animalia guztientzat, gizakientzat den bezalaxe, kapitainak bazekien horrenbeste, eta hemen dator presarik gabe txerriei begirada bat boteaz, zaintzaile honi ere errespetu pixka bat erakusteko; alegia, ez zetorrela jefe gisa ezordu hartan, lagun moduan baizik, hitz pare bat esatera, edo hiru, baina lagunkiro... Itxura hori hartu nion.

"Gabon!", esan zidan iristean, eta eskuz bizkarrean adiskidantzazko bi kolpetxorekin agurtu ninduen...

"Gabon, kapitaina", erantzun nion, burruntzali ordeko potoa deskantsuan utzita... Eta ni pentsatzen, ohitua nagoelako honetara, maila honetan ere, txerrikortan, funtzionatzen dutela klabe horiek...

"Ez dakizula zertara datorren?"

"Ez dakit..."

"Telefonoa jarriko dugu hemen."

"Txerrikortan?"

"Telefonoa, bai, zuk eta nik, eta Merzeditatek, eta hurrek ere bai behar izanez gero, elkarrekin hitz egiteko."

"Orain ere hitz egiten dugu..."

"Esan nahi dut azkarrago eta maizago egiteko, zeren eta gerra aurrera doa, eta gero eta soldadu gehiago biltzen da..."

"... eta hiltzen."

"Baina kinta berriak hor daude zain, borrokarako deseatzten..."

"Uste duzu, kapitaina, jendeak gustuko duela hori? Deseatzten dagoela gerrarako?"

Ez nekien zertara zetorren, baina ez zitzaidan gustatu batere telefonoarena, traza zaterra hartu nion, ez dakit zergatik baina. Kapitainaren hitzei gogor egiteko gogoa etorri zitzaidan, irakiten jarria nengoen bor-bor, txerriaren pertza bezala. Txerrien ofizialak sumatua behar zuen nire amorru hori, halako diskurtso luze batean hasi baitzen...

"Bada denetarik mundu honetan: herria egiatan maite duten gazteak, hemengoak eta kanpotarrak... Ikusten dituzu italiarrak, alemaniarak, marokoarrak berak... Kontzientzia internazional berria ari da sortzen; horiek denek jaten dute, eta txerria internazionalizatzen ari da, eta hala, azkenaldi honetan egin dira nazioarteko estudioak txerria elikadura gai bezala hartuz, eta gaur gure industria hau, zurea eta nirea ere badena dagoeneko, garrantzi handia hartzen ari da, ulertzen duzu zeuk eta neronek dugun garrantzia...? Zeren eta gu, zu eta ni, ez gaude bakarrik, armada nazional batean gaude... Ikusiko zenuen etxean nire argazki bat... Hori ez da egina ni ofizial bat naizelako bakarrik, armada honen bitartez txerrien industria internazional horren zati garrantzitsu bat garelako baizik, eta, batez ere, industria hori orain goraka doalako. Espainiako bataila hau amaitzen denean, gure borrokaren lehen pausoa emana geratuko da, eta berehala Europa osoarena dator, European pauso militar handia emango dugu, txerrien industriak gorantz egingo du... Gero geratzen dira Asia eta Amerika; oraindik ez dago jakiterik munduaren batasunean hurrengo pausoa Asia izango den, Japonia buru dela, nolana ere beste zatia, eta ez txikia, Amerika izango da, Brasil handia, Argentina, Kanada eta Estatu Batuak buru. Hara, hitz gutxitan, Mundu Gerraren planteamendu laburra azaldu. Eta nire argazkia ikusi baduzu, zurea ere ikusiko duzu denbora gutxi barru..."

Berak heldu zuen orduan txantxil zatar hura, eta gurditxotik hartuta majera batean isuri zuen jana, txerri txikienean. Barre egin zuen haien muturkadak ikusita.

"Orain beste zerbait esan behar dizut gure egitaraua uler dezazun... Hau herriz herri garatzen ari da, zeu marokoarra zara, hemen bada marokoarren erakunde bat..."

Horretara zetorren, nire zelatan ibiliak ziren... Edo nire anaia Mohamed...? Ez!

"Bai, hitz egin didate, bada bat, eta esan zidaten apuntatuko nautela nahi badut, baina nik ez dut astirik ezertarako..."

"Ba apuntatu, komeni zaizu zuri, eta komeni zait niri ere!"

Gogor esan zituen hitzok, baina irribarrez bezala. Mututurik utzi ninduen.

"Soldata igoko zaizu... Pozik egotekoa da, ezta?"

Baietz erantzun nion. Baina han bazegoen batere susmo onik hartzen ez nion zerbait...

"Neuk bidaliko dut bihar bertan teknikari bat, hark jarriko dizu telefonoa."

Hurrengo goizean bertan etorri ziren hiru gizon telefonoa jartzera. Zortzietarako txerrikortan zeuden, tokia aukeratzen eta kableak botatzen. Merzeditas izan zen harrera egiten, eta gero txerrikortan eta etxean bertan izan zuten honen laguntza preziatua. Bai, emazteak gehiago zekien senarrak uste zuena baino! Bart, Kapitaina joandakoan etxeratuta afaltzen ari zirela, Bixentek kontatu ahala emaztea ongi eta bizkor jabetu zen kapitainak esandakoaz, eta ez zen batere harritu Bixenteri hain berri izan zitzaion telefonoaren kontuarekin, edo marokoarren zerikusi bitxi harekin.

Loak ezin harturik egon zen Bixente puska batean, oso gutxitan bezala.

Telefonoaren estreinaldia ostiral batean izan zen, eta larunbat arratsaldean esan zion Bixenteri Merzeditasek arrats hura egokia zela marokoarrekin harremanetan jartzeko, edo hurrengo egunean, igandean, eguerdi aldean. Gure Mohamedek ere pentsatzen du, ez uste!, eta derrepente irten zitzaion esatea, ba, larunbatean bertan egingo zuela bueltatxo bat... ez daki ziur non den, parte zaharreko etxe batean zela gogoratzen da.

"San Nikolasen ondoan, aurrean, 12. zenbakia, horrekin nahikoa duzu hori topatzeko..."

"Eta mingaina ere badut, galdetzeko...", esan zion kopetilun senarrak, hark nola zekien galdetu gabe.

Eta hala irten zen zazpiak aldean, euritan, aterki eta guzti, euskaldun baten gisa.

Eta pentsakor.

Gero eta gehiago behar zuen pentsatu bizirik aurrera irteteko, "Redios!", behin nahi gabe atera zitzaion bezala Eugenio erretorearen aurrean.

Eta erretorea burura etorri zaion honetan pentsatu du gaur bi ikustaldi egin behar dituela: bat, biltoki marokoarrera, hemen egon dela ziurtatzeko-edo, bere emazteak jakingo luke ez balitz handik pasako, gero eta sorginago ikusten du andrea! Eta gero beste buelta bat erretorea bisitatzera, badu eta zerbait kontatzeko bere lagun minari...

Elizaren alboan laster ikusten dut solairuan argia, eta norbait sartzeko puntuan, biboteduna, eta galdetzen diot arabieraz ea Mohamed ezagutzen duen, bai, arabieraz berak ere, ezagutzen duela, baina nola hiritik kanpora lan egiten duen astean zehar, gehienetan igande goizetan azaltzen dela han, hamaikak aldera. Sartu naiz berarekin, emakumetxo bat zegoen eserita norbaiten zain. Gauza txikia zen dena, lau mahai aulkiz inguratuak.

Eseri gara biok batean eta berehala zutitu da andrea eta eskaini digu zerbait nahi ote genuen, eta nirekin heldu denak te bat eskatu du eta niri eskaini dit, eta baietz, eta infusioa etorri den bitartean aritu gara berbetan... Hartu dugu tea; andrearengana joan naiz, ordaindu dizkiot biak. Ez da nire Mohamed laguna azaldu, eta don Eugeniorengana jo dut.

Erdiko atea ezagutzen nuen, etxekoen bidea, eta txirrina jo dut. Parrokiako gizon txiki batek ireki dit, ezagutu nau, eta esan diot Eugenio erretorea ikusi nahi dudala. Begira geratu zait susmoz, eta esan diot Joxerekin hitz egin nahi nuela. "Sakristaua?", galdetu

dit, eta baietz, noski, eta eserarazi nau aulki gogor horretan. Joxe etorri da nire bila eta eskaileraraino irten zait Eugenio.

"Horrenbeste denbora elkar ikusi gabe..."

"Egia da, don Eugenio..."

"Zer dugu berri? Afalduko diagu lasai..."

Egun argiz etxeratu nahi dudala esan diot, beste batean etorriko naizela... eta kontatu diot telefonoarena, marokoarren etxearena... Kapitainaren eta emaztearen berri eman diot...

"Zer iruditzen zaizu?"

"Isilik geratu, ez ezer nabarmendu, andreari ere ez... Gaur larunbata duk; gaur zortzi, gauez, gaur bezala, zortzi eta erdietan, etortzeko modurik izango duk...? Joan hadi bihar hire treneko lagunarengana, ikus-entzun ezak ahal duana... Bitartean emaidak hire telefono berria... Joxeri emaiok. Kopia ezak, Joxe, eta laguniezaiok erdiko ateraino. Datorren astea arte, neuk ez badiat deitzen..."

Altxatu eta besarkada bat eman dit apaizak, "Ez badiogu elkarri bitartean deitzen... Emaiok, Joxe, gure telefonoa..."

Laguntza garaiz

Joxek marmarka hartu zuen telefonoa. Egia esan, beranduxeago deitzea ere bazutela pentsatzen zuen, goizeko meza baino askoz lehenago baitzen, oraindik ilun martxoan, ateri bazegoen ere.

Eugenio oraindik lo.

"Hara!", esan zuen bere baitan, "Jainkoa baino goizago jaiki nahi duenik bazegok munduan norbait..."

"Bai, Joxe, nor da...?" esnatze erraza izaten zuen don Eugeniok, eguneko siestek kentzen zioten gaueko logura.

"Konferentzia, esan dute zentralitan. Emakume bat, kanpotik deika, Belgikatik, zurekin hitz egin nahi duela, ez dakit Begoña ez didan esan..."

"Bai, erretore jauna, don Eugenio, Begoña naiz, Mohamed marokoarraren lagun bat... gogoan nauzu...?"

"Izango ez haut ba! Baina ez al hengoen Marrakechen edo hor nonbait?"

"Belgikara bidali ninduten gero..."

"Aizan, eta telefonoa, nondik lortu dun...? A, hermana Karmelek? Koño! Ene, barka ezan, izan ere..."

"Asteazkenean, etzi, irtengo naiz... Ez, geratzeko ez; baina gerra amaitu dela-eta familia ikusi nahi dut..."

"Ez din kalterik egingo. Etorriko haiz honaino?"

"Zuk agintzen badidazu..."

"Bai. Heltzen haizenean, deitu. Bildu behar dinagu hire lagunarekin."

Ezin dugu jarraitu kapitainak jarri gaituen estuasunean, honetatik ez da gauza onik aterako, alde egin behar genukeela uste dut, nik ez dut inor galdu nahi... Ez dakit zer bilatu nahi duten morokoarron elkartean, beharbada haxixa dabil hor eta militarrek nahiko dute...

Begoñari zuzendu nion eskaera, begietara begira, don Eugeniorenean bildu ginen hartan; lehen, eta honen laguntzaz, eman nuen lehen pausoa askatasunean. Emakumeak gogoan zuen, bai, garaia:

"Asmoa ona da, eta honek esan nahi du azken aldi honetan gizondu, heldu, zarela. Baina emaztearekin hitz egin behar duzu... Ezin duzu familia berriro galdu... Zer iruditzen zaizu, don Eugenio?"

Apaiza bat zetorren Begoñarekin. Ni jota nengoen, ez neukan kemenik Merzeditasi aurre egiteko, baina bestetik ez nuen don Nemesio Berdumez kapitain jaunaren amaraunean erori nahi... Jota nengoen, bai.

Hil bat bezala, egia esan.

Txerri bat kanalean bezala, hobeto.

"Badut Gipuzkoan, Andoainen, lagun bat Subijanaren irundegian karguduna, Boni Arrieta; Bruselara etorri zen orain gutxi negoziotan..., badakizu Goyatarrek hara alde egin zutela gerran, haiek ikusi nahi zituen bidenabar.... Orduan egin nintzen haren lagun, oso pertsona egokia da... Beno; zer iruditzen zaizu, don Eugenio, eskatzen baldin badiot peoi lana egiteko norbait hartuko ote lukeen...? Hala, lagunduko nioke Mohamedi beste aurrerapauso bat egiten bere sendaketan..."

"Oso ondo iruditzen zaidan..."

"Ez iezaiozu oraindik ezer esan, ea bere emaztearekin konpontzen den berez. Zeren honelako gaixoez laguntza neurtuak behar dituzte, eta ahal bada segizioa egin kontu handiz."

"Bai, oso ondo iruditzen zaidan... Badakin? Karmelek ez zidan oraindik esplikaziorik eman..."

"Monjen artekoa jakin nahi du berorrek... eta ez du inoiz jakingo, 'Koño!' mila bider esanagatik..."

Hobeto egingo zuen Begoñak, baina, dauden idiekin goldatu behar omen da lurra, eta Bixente bi laiako laiari koxkorra izan, etxeratu bezain laster seme-alabatxoan aurrean bota zion, ziplo!, "Merzeditas, zer iruditzen zaizu etxez aldatuko bagina?" "Aldatu? Nora?"

"Ez dakit, pentsatuko dut zerbait, baina nik uste dut aldaketa bat komeni zaiela haurrei ere..."

"Adi ezazu, Bixente, norekin mozkortu zara gaur? Aldatu, gero joan-etorrietan ibiltzeko txerrikortara?"

"Ez genuke txerrikortarekin jarraitu behar..."

"Don Eugeniorekin egon zara, ezta? Hark berotu dizu burua!"

"Ez, niri bururatu zait, aspaldi darabilt buruan..."

"Zeuk ez duzu horretarako bururik!"

"Gure familiak aurki dezake bakea eta poza..."

"Hori don Eugenioren esaera da!"

"Baliteke, gustatzen zait..."

"Niri ere bai, baina zakur-amets hutsa da."

Hasperen egin du Merzeditasek, apaizen esaldi politiek amorrarazi egiten dute. Aldamenean eseri zaio.

"Batzuetan, Bixente..." emazteari bigundu egin zaio orain hitza, badirudi beste norbait dela, baina Bixentek ezin ditu tonu aldaketa batzuk bereizi... "Gustuko dut zuk noizbehinka honelako gauzak beragandik ikastea... Eta Begoñak, zer dio? Begoñarekin biltzekoak zineten, ezta?"

"Ongi zegoela bidaiaren asmoa orain, baina neuk zurekin hitz egin behar nuela."

"Ikusten? Horrek ezagutzen gaitu; asko zor diozu zuk Begoñari..., eta ez dugu inoiz elkar ikusi, ez gara ezagutzen... Beharbada, hau da unea... Non da Begoña orain?"

"Erretorearen sukaldari dagoen monjaren komentuan lo egitekoa omen zen. Beharbada han dago gaur gauean oraindik."

Andoaingo hilanderia fabrikako Boni enkargatuarekin bildu zen Begoña, ea bere lagun marokoarrarentzako lantxoren bat izango ote zuen.

"Ez nekien zure lagun hori mairua zela!"

"Halaxe da... ez zaizkizu marokoarrak gustatzen? Marokoar kristaua da, katolika batekin ezkondua, bi haur dituzte, biak bataiatuak, ez dute balio?"

"Hala izanez gero hitz egingo dut... Barkatu, Begoña, baina esan behar dizut eragozpen hau ez dela inolatan ere nirea, enpresarena baino."

"Bai, badakit, ezagutzen zaitut Boni, baina fabrika hori europarra da, eta oso kristaua dela aldarrikatuko dute..."

"Bai, hala da..."

"Orduan...?"

"Ez dut ahalegina egin gabe utziko."

"Monja ez bazina, esango nizuke..."

"Esan lasai, entzuten ohitua nago... Horretarako zitatatu nauzu parkean, ezta?"

"Egia esan, ez nuen don Eugeniorenean nahi. Badakit hura eta zu bat eginda zaudetela nire kontra, Bixente daukazuela begiko..."

"Barka ezazu, Merzeditas... Nik Marrakechen lagundu nuen zure senarra, oraindik zure senarra ez zenean. Eta han ez zegoen don Eugeniorik!"

"Badaude gauza batzuk emakume batek bakarrik konpreni ditzakeenak..."

"Ez naizela emakumea pentsatzen duzu? Ez daukazu deskuido makala! Beharbada zuri esan ez dizkizunik esan zizkidan niri Mohamedek, zutaz ari zela, Marrakechen."

"Nitaz?"

"Bixentek laguntza handia behar du, haur hautsi bat da."

"Haur hautsi bat..."

"Aingerutxo bat, bere amonak zioenez."

"Hori esan nahi nizun... Zera, badakizu zer esan nahi duen horrek?"

"Nik ahal nuena lagundu nion gizontzen, bidali ere neuk bidali nuen Alkazarzegerrera. Zuregana."

"Ez dut uste inoiz gizonduko denik..."

"Patxada behar du, kaboak eta tenienteak eta kapitainak inguruan edukitzeak ez dio onik egiten."

Bixente diskretua izan zen oraingoan, ez zuen tabernan hitz egin Mohamed gisa, aspaldi utzia zuen edaria, eta eskarmentu handiko gizona egina zen; berehala ikasi zuen irundegiko makina luze handi zaratatsu haietako harien artean atzamarrak kontu handiz sartzen. Lanean erakusten ibili zitzaizkionetako bat Patxi Basterokoa izan zen, mutil gaztea, gerra zela eta herritik kanpora frentean ibilia eta orain aste batzuk gerraurreko lanean berriz hartu zutena, beste asko bezala.

Gerra honek itzuli asko izan zituen, eta Patxi gazteak ere bai.

Bixente marokoarrak bezala, Patxik eskarmentua izan du; ez da, gerraurrean bezala, langileen batzarretan ibiltzen, haiek ahaztu dira; futbolearen ibiltzen da orain herriko

hamaikakoan; mendira igotzen da, askotan bakarrik; ez du andregairik bilatzeko ere arreta handirik jarri, eta inork nolabait hitz gutxirekin sailkatu behar balu, bakarti, isil, langile eta gizon xume eta apal bezala deskribatuko luke.

Bixente eta Patxi laster egin ziren lagun; bi bakardade aurkitu ziren; bizi ere etxe zahartxo berean bizi zirenez, lanerako bidea elkarrekin egiten zuten maiz; herritarren batek asmatu zuen gerratean ezagutu zirela; non?, frentean, non bestela!; marokoarra zela ere zabaldu zen, besterik gabe, ez da bakarra!; laster erantsi zion beste batek zer ikusiren bat izan zuela Boni enkargatuarekin garai hartan Brigada Internacional famosoetan, eta Bixente zela honen tenienteetako bat.

Nolabait ere jakin zuten fabrikan Belgikan exiliatua zegoen herriko emakume batekin harreman isiletan zebilela, Pasionaria komunista ospetsuaren senide egiten zela.

Bonba bat lehertu balitz bezala izan zen, inoiz ezer pasa ez zen Algodoneran.

Ez aurreneko, baina hau dena oso goiz jakin zutenetako bat Subijana nagusia bera izan zen; hasieran ez zuen sinetsi, esperientziako gizona baitzen; baina bere bulegoan mandatari lana egiten zuen kontakatilu batek isilpean nagusiaren etxera bertara joan eta eskutitz bat eraman zion proba bezala: exiliotik etorria zen Begoña batek –seguru ezizen bat– eskerrak ematen zizkiola Boni enkargatuari isilean, marokoarrarentzat lortu zuen lanarengatik, baita Patxi Bastero lanean laguntzen jarri ziolako ere, beste isilpeko kontu batzuekin...

Egiazko bonba bat!

Honen berri azkeneraino ezer jakin ez zuen mutila, noski, Bixente izan zen. Bastero bera ez zen ausartzen Bixenteri ezer aipatzera. Gerra amaitua zen, baina gerraondoa bizirik, egunero aurkitzen zen arrazoiren bat susmopean ibiltzeko.

Haurrak eskola berriko aldaketara egiten ari ziren, eta Merzeditasek jarraitu zituen jolas bat bailitzan, herri txiki bateko esperientziak! Bastero adiskideak laguntzen zien herria ulertzen. Txerriak falta zitzaizkion, hara! Bixentek beldurrak pasa zituen aldaketara ohituko ez ote ziren, batez ere emaztea. Eta behin esan zion senarrak bi pertsonarekin sentitzen zela zordun: Begoñarekin, berriro hain leial eta egoki lagundu zielako, eta fabrikako enkargatuarekin. Gau hartan, zortzi-zortzietan joan zen herriko telefonikara eta hitz egin zuen Begoñarekin, hau Belgikara itzuli aurretik; honi gustatu egin zitzaion arreta hori, batetik Bixenteren ekimena izan zelako, eta bestetik Merzeditas pozik zegoela zirudielako, hau ere positiboa bere senarrarentzat. Eta ausartu zen Begoña, bere aldetik aditzera ematen Merzeditasi esateko bisita bat egin ziezaiola Boni enkargatuari, berari ere eskerrak emateko, aditasun polita izango litzatekeela-eta.

Gauza hauetarako oso dohain politikak baitzituen Merzeditasak.

Eta goiz batean asmo honekin jaiki eta hamarrak aldean joan zen bulego nagusira. Ondo hartu zuen enkargatuak, pozten zela pozik zeudela jakitea, Begoña lagun fidela zuela aspalditik, edozer gauza gertatuta ere hortxe zegoela bera enkargatu, bere senarrari laguntzeko, eta ateraino lagunduta agurtu zuen.

Hau ere laster zabaldu zen bada!

Eta eraginak sortu.

Lan bila joan zela. Ezin hobeto hartu zuela, postu berezi baterako. Hurrek eskolan esan zutela beti txerri hazkuntzan aritu zirela gurasoak... Zer egingo du txerriak hazten aritu den emakumeak, itsusia ez bada, hilanderia batean, txerrikeriak ez bada? Igandean Patxi Basterorekin ikusi zutela leihoan, biak eskuz esku. Txerrikortako andrea hilanderian hasi dela lanean. Atzo goizean Patxirekin joan zela. Bazkaritakoan ere bai, eta gizona, marokoa, bakarrik.

Zer entzun zain dagoenak entzuten ditu ahotsak, eta hemen mirakuluren bat gertatu zain zeuden denak.

Ibaiak bere bidea egiten du

Larunbat arratsaldea da, garbitasun eguna langileen etxeetan. Euria ari du ostegunaz gero, eta Oria ibaia puzten hasia da, joan den astea ere euritsua izan baitzen, eta Goieritik irekita datorren ubidearen arroa zabala bada ere ez da sakona, eta laster betetzen da, eta hemen, goraxeago, Santakruzeko ermitan, Leitzaran erreka gain eginda heltzen zaionean asko galgatzten du; hala, Txistokiko estueran gora egiten du nibelak. Lehen bazuen Allurralde baserrian artotako lur zabal ederra, arroaren gainezkako urak ibaia lasai dezan beharra duenean.

Gaur eguerdian Bixente, Patxi eta Merzeditas zubi gainetik ur zurrunbiloei begira geratu dira lanetik etxerako bidean, ur txokolatetsu lodi hura batetik eta metal kolorezko Leitzaran zorrotza bestetik, biak zubi azpian halabeharrez elkartzen direnean. Euri txikia ari du, eroso aterki biren babesean... Badirudi isuri biak batzean txinpartak ere atera behar dituela, zorrotzaile erraldoi baten eskuek bi lerro xuxen lasterka biltzen dituztenean bezala. "Bazkaldu ere egin beharko dugu", dio Patxik, goseak, noski, eta marokoar bikotea fenomenoarekin harriturik so, "Orain ulertzen dut don Eugeniok euriaganako zuen lilura", esaten du Bixentek.

"Egia da", dio emazteak, "askotan aipatu izan didazu."

"Etxe honetatik, lo zegoela ere entzungo zuen presaren ur-dardara fina", dio Patxik, "eguneroko ur jario lodia, hau ez da eten sekula, Maindiko iturria amaitzen ez den bezala. Hemen ez da ura sekulan ere ahitzen", esaten du enfasi biziarekin; "ardoa bai, baina sagardoa eta ura, ez; nola bestela hainbeste bataio!, gure aitak esaten zuen bezala."

Zubia begirazalez bete da.

Eta iluntzen hasi du, eguerdian! Hiruko honetan Patxi da esperientzia duena eta badaki Belkoain mendia egunez laino beltzez kargatzen denean atzetik datorrena euri handitan husten duela.

"Goazemazue bazkaltzera, berebiziko jasa dator eta... Goazen, Merzeditas...", badarama Bixenteren emaztea aterkipean zubitik aurrera etxerantz... "Bixente, bagoaz, goazemazu..." eta Bixente atzetik doa Kale Berrian barrena, pentsatuz eta gogoanbehartuz Merzeditasen poza Patxiren besotik... eta mantsotzen du bere abiadura apur bat, haur baten erantzun haserrea. Etxera bidean doaz, Nikolaxen etxe aurretik, Elorriaga injineruaren txaletaren hurren, lau solairuko etxe zahartxoaren ezkaratzera iritsi diren arte... Lehenengoan bizi dira Basterotarrak, egurrezko eskailerak igoaz, eta azkenean Bixenteren familia osatzen duten laurak.

Haurrak bere disputatxoan ari dira.

Bazkaldu eta etxeko garbitasun legeak egin zituzten senar-emazteen artean; haurrak bainatu zituzten balde handian, bata bestearen ondotik, azkenik Merzeditas atera zen; ilunabarra zen ordurako, auzoko garbilerak irten zenean, eta bitartean bainatu zen Bixente, seme-alabak bezala sukaldean bertan, haurrak partxisean ari zirela bere borrokatxoan, egurrezko ekonomikaren epelean... Bixente balkoi irekiaren aurrean eseri

zen aulkitxo batean, don Eugenio gogoan zuela euria nola ari zuen begira. Ez zituen Mohamedek erretoreak ikusten zituen guztiak ikusten, horretarako egiazko katolikoa izan beharko zuen, eta apaiza ere bai..., eta Mohamedi ez zion euri honek hainbeste esaten.

Laster etxeratu zitzaion andrea, balde arropa buru gainean, euritan blai, eta hotzak dardarka.

"Hotzak zaude!", esan zion galdetuz senarrak, "Bainatu eta jantzi zaitetz, neuk zabalduko dut arropa ganbaratxoan, zu bitartean bainatu eta jantzi lehor."

"Bai, jela-jela eginda nago."

"Tira, joan zaitetz, hau nire kontu!", eta laguntzen dio balde arropa burutik jaisten. Dena sinkronizatua dago. Andrearen burua ikusten da hemen, ziur.

Haurrak, fitxa disputan beti.

Gaurkoa dilubioa baita, eta Historia Santuan behin bakarrik agertzen da Noe.

Aulkian loak hartuta geratu da Merzedistas sukaldeko balkoia zabal irekita, trumioia eta ur jasa entzuten balego bezala; zorrotena bakarrik falta zaio erretorearen neskame izateko. Mohamedek sartu ditu haurrak ohean eta amaitu ditu bereak diren ohiko lanak. Begiratu du jiran ingurune osoan: bai, amaitu du. Eta sukaldean eseri da. Merzeditasek zoriotsu dirudi balkoi aurrean lotan. Eta gizona trantzean jarri da, pentsatzen jarri da; badu sorginaren zerbait honelako kinkan jartzen denean. Begiak okertzen zaizkio barruko zerbait ikusteko modua lortu balu bezala, zer mundutan dagoen jakin nahi luke Bixentek, ez baitago lo, erne baizik, ez ametsetan, bere zentzuetan erne baino.

Ez du edozeinek lotan harrapatuko...

"Merzedistas, zoaz lotara, nekatua zaude eta, laster noa ni ere", eta aulkitik altxatuta badoa Merzedistas aharrausiak eginez, logelara sartzen ikusten du Mohamedek. Balkoira irteten da orduan Bixente; ikusmiran apur bat egon eta gero ixten du balkoia, esertzen da, zain dago ordu laurden bat, kronometraturua, noiz pasako; itzultzen da logelara, baina ez oheratzeko; Merzedistas lo dago, hartzen du aulkiaren bizkarraldetik sweter beltz bat, jaisten ditu eskailerak kontu handiz ezkaratzeraino, atzealdera egiten du, eta portalean bertan dagoen beste atetik irtenda kanpotik ixten du... Euria beti, geratu gabe, ate aurrean dagoen putzuaren gainetik jauzitxo bat egiten du ilunpean.

Ez da besterik pasa.

Bost bat minuturen buruan eskaileretako ohol negartia sumatzen da eurian barrena. Merzedistas da, ez zegoen lo!, eta aurretik irten da, arduraz, ardura handiz! Itxoin du ilunpe beltzenez, adi, zer entzungo... aurreko atetik begirada labur bi bota ditu: euria lehengoan; joan da atzeko atera kontu handiz, egon da minutu luze bat burua kanpora agertu arte, irten da euritara, irekitzen du aterkia, blast... eta euritan geratu da aterkipean zain.

Euriak jarraitzen du eta zeruko argi bat pasa da laino gardenen artean, euritan gogor oraindik. Ikusi du ibai ertzean ura zurrumbiloka, hurrupadaka, ur tira haiek bizirik jaisten ari den suge itzel baten arnasak bailiran. Sumatzen du Merzeditasek bere aurrean ikusten ez den leize mugikor espantagarria, ez da irudipena, egia da, eta pausoa bota ez bota zalantzan dago, soka baten gainean balebil bezala... Erori zaio eskutik aterki

preziatua, bere senarra euskaldun egiten duen tresna, nekatu zaio zangoa kinka honetan eta gora begiratu du, ea tximistaren bat edo lehengo argi garden eta probidentziala pizten zaion, non dagoen jakiteko lain bederen... Zangoak sentitzen ditu bustiak... Urruneko tximista batek argi luzea utzi du aldean istant batez eta ikusi du non dagoen, etxetik gertu eta ibai ertz-ertzean, neska-mutilek abarrekin jostatzen etxetxoa eraiki duten estalpearen ondoan... Urak larru gainetik ibaiak bailiran dihoazkio gorputzean behera...

Eta sartu da haurren etxolan, eta norbaitek garrasi egin du! Ez garrasi libre bat, garrasi estu eta gordezin bat baizik, gizasemereren batena... bere aingerutxoarena! Ikaratu da Merzeditas. Eskua bota du eskuin aldera, baina hutsa baizik ez du topatu, eta hurrena zerbait uretara erortzen deneko hotsa aditu du, blust!, eta garrasia haizeak eta urak eraman dute orduan ibaiarekin batera, beherantz, abian! "Mohamed!" esan du andreak, garrasi guztiak airean eta uretan plisti-plasta, eta gero eta urrunago entzuten den arnasestu baten hotsa... gero eta urrunago Mohamed... Merzeditas negarrez hasten da, behingoagatik negarrez... "Patxi, Patxi!" intzirika... Eta hemen dago Patxi, lotsatuta... Ibaiertzean beherantz joan da, Txistokiko etxe hondaturantz, ijito gaixoen babes galdua, eroria, amildua... Hemen dago Patxi, Txistokiko babesean, ezer ikusi ezinik, eguna noiz etorriko zain, gau osoa dauka oraindik...

Eguna abiatu da nonbaitetik, urrundik ikusten da pizten, euria gelditu du aspaldi, baina urak handituak datoz... Osorik azaldu denean, lehenengo argia egin denean, auskalo nondik abiatu den argi hau, Patxiren gorputz kikildua, hoztua, dardarka ikusi dut nik neuk, ur azpian gelditu den Bixente Mohamedek, ikusi dut mataderia, non dira txerriak, ikusi dut zubia, ez da ikusten zentrala, Ameraungo zentral elektrikoa... Patxik begiratzen dit, baina ez nau ur azpian ikusten, ez du ibaiaren lasterra baizik ikusten, zutitzen da eta presa du orain, inguratu da zubira, miatzen du ibaiertz ingurua, "Bixente! Bixente!" oihuka, Merzeditas azaldu da orain atzetik, etorri da, Patxik egiten dio hitz, "Ameraunen egongo da, han geratzen dira itoak, badago beti baten bat han..." Eta "Goazen, goazen!" dio Merzeditasek eta badatoz, ikusi dute sweter beltza ur uherretan...

Bai, sinetsi egin behar didazue, egia diotsuet, eta esango dizuet zergatik, nik akabatu nuelako teniente hura, eta ez minbiziak... Halaxe esan nion berari, txerrikortara etorri zitzaidan batean, "Txikitandik jarri naute sufritzen eta bakarrik; aitona-amonak sentitu ditut onak, ez da gutxi, eta Begoña izeneko emakume atzerritar, arrotz bat, baina ona. Galdu nuen aitona, nire besoetan hil zen hain zuzen, eta poz hori gorde dut betiko; gero Begoña galdu zait, eta azkenik amona hil zait eta heredentzia bakarra utzi zidan: Merzeditasen eskuetan utzi ninduen betiko, hau izan zen bere hitza. Hitz hau gorde dut sakratua bezala", halaxe esan nion teniente albaitariari. "Ez naiz biziko berriz lehen bezala, nahiago dut hil!", eta hau bera errepikatu behar diot orain kapitainari, eta zuri

ere bai, Patxi... "Zuk ere ez didazu Merzeditas kenduko, eta Fatima eta Xabier ere ez, hirurak dira neureak orain..."

Eta orduan tenienteak atzera egin zuen, atzera egingo du kapitainak ere, eskua pistolari atxikia, eta zuk ere bai, Patxi, atzerantz, ni baino ikaratuago, eta urak eramandako hosto bat bezala galdu nuen begi bistatik, urak eramandako hosto bat bezala Merzeditas, zergatik egiten duzu negar, ni ondo nago, eta gabonetan don Eugenioren etxera joango naiz bixigua afaltzera, kandela piztu bat izango naiz haren mahaian, Merzeditas, zergatik esan behar duzu orain ere "Ene aingerutxo...!"

Aurkibidea

Zorioneko koitaduak (Xabier Mendiguren)
Aingeru bat
Bixenteren gerra gorria
Gerrako exodoa martxan
Bixenteren bidaia prestatu bitarteko gertaerak
Gerra aurrera doa
Mundu berria
Gerra, oraindik gerra
Laguntza garaiz
Ibaiak bere bidea egiten du.